

...eta
Kitto!

2019-III-29

1094 zkia.

Herriko altxorra ezagutzen

**Errenta
aitorpena**

Euskaraz

ERRENTA AITORPENA, aukeran, EUSKARAZ!

Eibarren

1.500 baietz!

EUSKARA BATZORDEA
www.eibar.eus





Informaticando

KARTELERIA DIGITALA

ZURE NEGOZIOAREN IRAGARKIA. EIBAR ETA ELGOIBARREN.

TABERNETAN



30

PANTAILA

KARTELERIA DIGITALA

ZINEMETAN



HARATEGIETAN



OKINDEGIETAN



HARREMANETAN JARTZEKO

WWW.INFORMATICANDO.EUS

943 15 06 22

...eta kitto!-ren

itzulpen

zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelerara,
gazteleratik
euskarara,
eta ingelesezik
euskarara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.



- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.

elkartea@etakitto.eus



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18 /
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Goigoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOAK: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.200 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta inntzien erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– Ana Telleria, Jose Juan Alberdi eta gainerako konpartsari –

Ai ama, zelako pena sortzen didazuen!! Horren beste urteren ondoren ez duzue oraindik digestioa gonoraz egin; izan ere, zuetariko batzuek **prebarikazioagatik inputatu** zintuzteten Errebalgo auzian. Bai, badakit artxibatua egin zutela hura (gero esplikatuko dut nola izan zen), baina ezingo duzue ahaztu euren irudia akusatuen aulkian eserita. Irudi hori agian txokeko terapia bezala zuen onbideratze aldera zabal daiteke sare sozialetan; niri, adibidez, argazki bat atera didazue (nire baimenik gabe argazkia egin eta publikatu baituzue), Antzerki Jardunaldietan gure Errebal plataformak burutu zuen performancearen montajea, hain zuzen ondoko goiburuarrekin: "Obra gutxi eta Antzerki asko" (tamalez, haizeak eraman zigun). Bada, horrek zirrara berezia egin dit, ez dago hori baino sendagai hoberik! Egia da prebarikaziozko inputazioa artxibatua geratu zela; hori bai, auziari zegozkion auzitegien **inolako ikerketa barik**.

Arreta deitzen du nabarmenki lehenengo emakume epailea, hain zuzen, gehien saiatu zena, bat-batean Bergarako epaitegira trasladatua izana; jarraian auzia epailez epaile ibili zen inork ez ziola ogitartekoari kosk egiten, azkenik, halako batean, artxibatua izan zelarik.

Baina esperantza izan ohi denez galzten den azkena, espero dut inplikaturikoren batek egunen batean adorea, zintzotasuna eta duintasuna izatea egia konartzeko. Baina nahi honek guzti honek nire osasuna kaltetzea nahi ez dudanez, standby-n utziko dut auzia, bien bitartean nire bizitza lasaitasunez eroango baitut.

Esan nahi nizeuke ez dela inola ere ona nireganako gorroto hats hori, ezta zuen osasunerako ere. Ho-

rregatik proposatzen dizuet beste autu batera joteko, ikasgaia ondo hausnartu duzuelakoan nago; ez baita Udala ezta Eibar bera ere zuen "herriko etxea", sinistu izan duzuen eta oraindik sinisten jarraitzen duzuen moduan.

Eta izan ezazue gauza bat garbi: esaten duzuen esaten duzuela ez didazue minik egiten, hobe zendukete energia guzti horiek gure herri honen alde jarri, gauza positiboek jaramon eginez... Ez ezazue ahaztu, ambulatortik Azitainera dena dela Eibar.

Juan Jose Alberdik dio "*alderdi abertzaleak odol garbia daukagula*" esaten ibili ei garela, eta sozialistak, ostera, "*mugak hautsi behar omen dituzte denon berdintasuna bilatzeko*". Horrelako ipuinik ez dut uste inork sinistuko duenik gaur egun. Mugak baino beste zerbait **hausten** errazago ibiltzen direla sinistuta nago. "Hautsi"? galdetu estatus hobe baten bila dabilzenei. Mugak? Hendaiara pasa eta harro Frantziako kideekin besarkatu, nor bere bandera aldean daramala... Nork jartzen dittu mugak!?

Amaitzeko, Jose Juan Alberdiri esango diot ahaztu egin zitzaidala aurrekoan esatea nire aita ez zela independentista; baina, benetako sozialista zenez, herrien eskubidea defenditzen zuela bere etorkizuna erabaki ahal izateko. Toribio Etxebarriaren 1918ko liburu gogoangarria (**La liga de naciones y el problema vasco**) irakurtzea baino ez du. Gogoratu behar da sozialismoa ideologia dela, ez PSEkoa izatea bakarrik; sozialista eta independentista izatea posible dela.

Maria Asun Gartzia (Aralar bezalako partidu bateko partaide izan delako harro dagoena)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MIHAZTU/MIHESTU.- Gutxitu, agortu. "*Zeroian jarixuakin lagun haregaz, mihaztu dittu bere ondasunak*".

Bakandu. "*Artuak mihesten jardun genduan atzo arratsaldian*".

MIETAU.- Mihiaz igurtzi, miatzatu. "*Katu emiak, mieztauaz garbittu eta apaintzen dittu bere umiak*".

astean esanak

"Jendea ez da jabetzen odol-transfusioak duen garrantziaz, ezta 10-12 poltsa jarri dizkietenek ere; euren etxeetara joaten dira, horri bueltarik eman gabe. Gaur egun odola 100 aldiz ematen baduzu, odol hori 300 kirofanotara joango da ehundaka lagunei laguntzeko. Ez dago harrotasun sentsazioirik. Harroago dago medula behin eman duena odola 100 aldiz eman duena baino. 1965ean, Gipuzkoan odola behar zuenak senide bat eraman behar zuen edo Odol-Bankuan ordaindu. Munduaren %90ean horrela jarraitzen dute"

(SABIN URZELAI, GIPUZKOAKO ODOLO-EMAALEAK)

"Espainia cannabis munduko haztegia bihurtu daiteke epe motzean. Gaur egun Holandako coffee shop-etan saltzen den %90 Granda, Almeria, Murtzia edo Kataluniatik heltzen da. Eta Uruguaiakoa hemen garatu da. Eta Alemanian, ekoizpen-ahalmenik ez dutenez, gure marihuanaren zain daude. Legez kanpoko kultibo lur handiak daude Espainian, Teruelen dozena hektareatik gorakoak. Eta 30.000 planta baino gehiagokoak mendi-aldapa eta abandonatutako industria-tegietan. Negozioa hor dago. Farmazeutikei aurre hartu eta giza-ekonomia sortu behar da, guztiondako onuragarria, ez Wall Street-erako" (SERGIO GONZALEZ, CANNABIS-AREN LEGALIZAZIOA)

"Nazio Batuen Erakundeak zorientasunari buruzko bere urteroko txostena eman du argitara. Irabazlea Finlandia da, bigarren urtez jarraian, eta, nola ez, sailkapenaren buruan Eskandinaviako herrialdeak dira nagusi: Danimarka, Norvegia eta Islandia, hurrenez hurren. Edonork pentsa lezake neguko kirolen txapelketa baten sailkapena dela. Espainiak sei postu egin ditu gora, 36.etik 30.era. Ez da meritua makala, krisi politiko sakona eta ustelkeria kasuak kontuan hartuta. Izan al daiteke eskuin muturrak bere benetako aurpegi Francozalea lotsarik gabe erakutsita espainiar asko zorientuagoak direla?" (ARITZ GORROTXATEGI, ZUTABEGILEA)

Euskeraz Primeran! Gilda Lehiaketaren azken eguna da gaur

Eguaztenian abiatu zan Gilda Lehiaketia gaur amaittuko da. Ediziño honetan 22 tabernak emon dabe izena eta epaimahaixak taberna horretako gilda guztiak probatzen dihardu, ondoren gehixen gustau jakuezenak aukeratu eta saritzeko. Gustua, originaltasuna eta aurkezpena hartuko dittue kontuan gildak baloratzeko orduan eta irabazliak 150 euroko sarixa jasoko dau. Aurtengo epaimahaixa osatzen daben kidiak Mireia Alonso Eibarko sukaldari ezaguna, Josu Mugerza Elgoibako Belaustegi jatetxekua eta Iñigo Kortabitarte Durangoko Kobikakua dira.

Aurreko ediziñuetan lez, epaimahaikidiak ez eze herritarrak be izango dabe lehiaketara aurkeztutako gildak dastatzeko aukeria, hiru egunotan salgai egongo dira-eta. 1etik 10era arteko puntuaziñua emongo detse eta bozkatu dabenen artian bi lagunendako asteburuko egonaldixa zozketatuko dabe. Gaiñera, jendiak emondako botuen arabera puntuaziño altuena jasotzen daben tabernari 150 euroko sarixa emongo detse. Gilda Lehiaketia ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen



dau, Euskeraz Primeran! kanpaiñiaren barruan. Egitasmuarekin, herriko tabernetan be euskera gehixago erabiltzia lortu nahi dabe. Irabazliak zeintzuk diran datorren astian emongo dabe ezagutzera.



Inauguraziño ekitaldixan hainbat erakundietako ordezkariak izan ziran.

Gaur amaittu da ABIAN Azokia

Eguazten goizian zabaldu eben #ABIAN Debabarreneko IV. Lanbide Heziketa Azokia Armerixa Eskolako patixuan. Inauguraziño ekitaldixan, bestiak beste, Ainhoa Aizpuru Gipuzkoako Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko diputaua, Marcos Muro Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gazteriarako sailburuordia, Amaia Arteaga Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendarixa eta Debabarreneko alkatiak egon ziran. Urte birik behin egitten dan azokiak gaur itxiko dittu atiak eta hiru egun honetan eskualdeko DBHko eta Batxillergoko 700 ikasle baiño gehixago jua dira, Lanbide Heziketak gure eskualdian dakan eskintza zabala bertatik bertara ezagutzera.

Dena prest Debabarreneko Bulkada Eguna ospatzeko

Martitzen arratsaldian aurkeztu eben apirillaren 6xan Eibarren ospatuko dan Debabarreneko Bulkada Eguna. Eibarko Ernaiko ordezkariak azaldutakuaren arabera, ekitaldixa Euskal Herri guztian zihar antolatzen diharduen Bulkada Egunen dinamikaren barruan prestatu dabe: "Apirillaren 19tik 22ra Lemoan ospatuko dan Gazte Topaguneak aurten urte berezixa dauka, Jarrai gazte antolakundia sortu ebenetik 40 urte betetzen dira-eta. Belaunaldi barrixak badatozela eta euskal gaztiak etorkizunari adarretatik heltzeko zeregiña dakagunez, bulkada barrixak dira independentziarako bidia egitten segiduko dabenak, bai gazte mogimenduetan, arlo kulturalian, artistikuan edo sozioekonomikuan. Horregaittik, 'Bulkada berrien garaia da!' aldarrikatzeko ordua dala begittantzen jaku, eta horretara bideratu dittugu azken hillebetiotako gure ahalegiñak, Bulkada Eguna Debabarreneko gazte belaunaldiak bildu eta independentziarrantz abiatzeko hitzordua izanda".

Apirillaren 6rako prestatu daben egitarauan denetariko jarduerak egongo dira: Topagunearen aurkezpena, hitzaldixak, herri bazkarixa, bertso saiua, elektrotxarangia, ekitaldi politikua, kontzertuak, Djak... Antolatzaillien berbetan, "azulorian aurrera etaroko



dogun egitarauan parte hartzera etorri nahi daben guztiak ongiertorrixak izango dira". Herri bazkarirako txartelak Guridi, Buenos Aires eta Beleko tabernetan ipiñi dittue salgai (8 eta 5 eurotan).



Errenta aitortpena euskeraz egitteko kanpaina abiatu dau Udalak

Herritarrek errenta aitortpena euskeraz egittera animatzeko asmuarekin, "Eibarren 1.500 baitetz!" izenburuko kanpaina abiatu dau Udaleko Euskera Batzordiak. Azaldu dabenez, "asmua administraziñuarekiko harremanetan be euskeriaren erabilleriak gora egittia da eta, horrekin batera, kanpaina goiburuak ondo adierazten daben moduan, 1.500 eibartarrek aurtengo errenta aitortpena euskeraz egin deixela lortzia". Kanpaina ointxe hasi eta ekaiñaren amaierara arte egongo da martxan.

Euskera Batzordiak dittuan datuen arabera, "iazko ekitaldixan 1.209 eibartarrek aukeratu eben euskera Foru Ogasunarekin harremanak izateko hizkuntza modura, errenta aitortpena egin eben herritarren %10 inguruk".

Aitortpena egitteko moduak

Gaur egun errenta aitortpena egitteko hiru modu dagoz, eta guztietan era-

billi leike euskera: "Jasotako autoliki-daziño proposamena onartzerakuan, euskeraz egin nahi dozula esan eta aurrerantzian Ogasunak agirixak euskeraz bialduko detsuz. Mekanizatuaren kasuan, barriz, hitzordua hartzian Ogasunarekin harremanak euskeraz izan nahi dittuzula adierazi. Ogasunarekin aurreko harremanak, telefono edo Internet bidezkuak euskeraz izan leikez, zuk holan eskatuz gero. Ogasunak siñatzeko emoten detsun orrixa be euskeraz jaso zeinke. Internet bidezku nahixago izanez gero, Errenta programaren euskerazko bersiñua internetetik jaisi eta hobetsitako hizkuntza ataluan euskera aukeratu. Bestalde, aholkularitzaren bat aukerazten badozu, espresuki adierazi biharko dozu aitortpena euskeraz egin nahi dozula. Eta beste modu batian egitten badozu (finantza erakunde batian, adibidez), euskeraz egitteko eskatu".

autuan

SOROSLE ETA SOROSPEN IKASTARUA

Apirillaren 1etik 12ra Sorosle eta Lehen Sorospen ikastaro barrixa hasiko dau DYA Gipuzkoak Eibarren. Bi asteko iraupena izango dau eta klasiak 18:00etatik 21:00etara bittartian emongo dittue, DYArekin Ordezkaritzan (Pagaegi, 5). Bihotz-Birika susperketia, zaurixak, hausturak, erredurak... ezagupen oso arruntak, baiña oso lagungarriak ikasiko dabe. Bestalde, ikastaro amaierako frogak gaintzen dittuanak, DYA Gipuzkoaren Sorosle Titulua eskuratzeko aukeria izango dau. Matrikuliak 110 euro balixo dau. Izena emoteko edo informaziño gehixagorako 943 46 46 22 telefonora deittu edo sartu www.DYAgipuzkoa.com helbidian.



FM Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ **943 20 19 51** | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

GRUPO Funeuskadi

MUSIKALA
Mugimendu eta sormen tailerra

helmet house

APIRILAK 28

10:30-12:00
3-6 URTE

16:30-19:30
7-11 URTE

650 171 437

PUBLI RESA
objeto publicitario

Armagin, 3-5 beheak

- merchandising
- serigrafia
- lanerako erropa

publiresa@publiresa.com | 943 701 497 / 615 799 419

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Probaderoko bihargiñak greba mugagabia hasi dabe



Arma Probaderoko bihargin bi kaleratu dittuela eta greba mugagabia hasi dabe bihargiñak, "danak bat izan ezik", ELA sindikatuaren arabera. Salatu dabenez, kaleratziak hauteskunde sindikalak bultzatzen ari zizala gertatu dira: "Kandidaturen orrixa enpresari entregatu jakon egunian bertan, hórrek lagun bixak kaleratziarekin erantzun eban. Gaiñera, kaleratze orrixa bertan onartzen dabe holako neurrixa hartzeko arrazoi objektiborik ez daguala". Diñuenez, bi bihargiñak atzera be enpresan hartu arte ez dake greba bertan behera lagatzeko asmorik. Bixen bittartian hainbat mobilizaziño egitten dihardue.

Diskurtso arrazista eta xenofobuak emetatzen

Martxuaren 21ian Arrazismuaren eta xenofobiaren kontrako Nazioarteko Eguna gogoratu zan eta, horren harira, Eibarko Udaleko alderdi politiko guztiak eta Kulturarteko Mahaixa osatzen daberen alkartiak adierazpen instituzionala aurkeztu eben hillaren 16xan Azitaiñen dagan Arrate Suhiltzaillien Etxian. Gaiñera, ekitaldixan parte hartu ebenak diskurtso arrazista eta xenofobuak emetatzeko baliabidiak, tartian 'Suteen aurkako gida' jaso zittuen CEAR-Euskadiren



Einer Rodriguezen argazkixak ikusi leikez Untzagako jubilau etxian

Untzaga jubilau etxeko zuzendaritzako kidiaren argazki erakusketia prestatu dau Einer Rodriguezek, 20. urteurrenaren harira. Aurreko astian Untzagako jubilau etxian inaugurau eben erakusketan zuzendaritzako kidiak izan diran 27 laguneren erretratuak bildu ditu egilliak. Apirillaren 7ra arte egongo da ikustera joateko aukeria, asteleheneetik barixakura 19:15etatik 21:15etara eta zapatu eta domeketan, barriz, 12:00xetatik 14:00xetara.



LUIS ITURBE LARRAÑAGA (2019-III-21)

"Beti gure bihotzetan" ETXEKOAK

FAMILIAREN IZENEAN, **ESKERRIK BEROENA** gure nahigabeen lagundu diguzuen eta hain agur beroa eskaini zenioten guztioi.

Bere aldeko **IRTEERA-MEZA** egingo da **martxoaren 31n** (domeka), eguerdiko **12.00etan**, San Andres parrokian.



1.000 kilo dilista pardina bildu nahi dittue, Lesbosera bidaltzeko

Lesboseko (Grezia) errefuxiatuendako 1.000 kilo lenteja edo dilista jasotzeko kanpaina abiatu da Eibarren herri ekimenez, Zaporeak alkartiarekin alkarlanian. Bilketa apirilaren 13an egingo da, Untzagako jubilau etxian, 12:00xetatik 14:00xetara. Egun horretan bertan higierako produktuak (konpresak, ojaliak, zapi umelak...) eruateko aukeria be egongo da.

Herriko talde, alkarte eta enpresak be ekimenean parte hartzeko deia egin dabe. Parte hartzera animatzen diran kolektibuek apirilaren 8tik 11ra bittartian euren egoitzetan bilketa guniak antolatu leikie. 50 kilo baiño gehixago jasotzen diran alkarte eta enpresetan, horren billa juango dira antolatzailliak. Interesa dakanak antolatzailliekin kontaktuan ipintzia eskatu dabe, 679 95 09 07 telefono zenbakira deittuta edo jangela@tekniker.es helbidera idatzita. ...eta kitto! Euskara Elkartek kanpainaekin bat egin dau eta, hortaz, nahi dabenak alkarteko lokalera (Urkizu, 11 solairuartera) etorri leike lenteja-paketiak lagatzera (astelehentetik eguenera).



Grezian daguezen errefuxiatuerei jaten emoten dihardu Zaporeak proiektuak 2016tik.

Arrateko ezpata-dantza Flandriara eruango dabe Kezkakuak

Asteburu honetan, zapatuan eta domekan, Flandrian dantzatuko dau Kezka dantza taldiak, hiri horretako ezpata-dantzaren festa egun haundixan. Izan be, Anbereseko ezpata-dantzia edo "Antwerpeneko zwaarddans" dalakuak 50 urte betetzen dittu eta, hori ospatzeko, tradiziñoz ezpata-dantzia egin ohi daben asteburuan bertakuekin batera Europako hainbat tokitatik gonbidatu dittuen hainbat taldek, tartian Kezkak, jardungo dabe ezpata-dantzak eskintzen. Esandakuaren arabera, "Arrateko ezpata-dantzia Antwerpenen eskintzeko dantzariz eta txistularixak osatutako 36 laguneko taldia eruango dogu". Antwerpeneko Lange Wapper taldiarekin

batera Eskozia, Herbehereak, Valonia eta Flandriako taldiak egongo dira jaialdixan, euskal ezpata-dantzen ordekarixa izango dan Eibarko taldiarekin batera.



Zuhaitz Egunarekin bat egin eben famelixak 40 zuhaitz landatu zittuen

Eguraldixa lagun izan eben domekan Iturburu aldian, Eztixan zuhaitzak landatzera animau ziranak. Aurten be bertoko zuhaitzak, lizarrak, haritzak, gorostixak eta urkixak landatu dittue, 40 bat arbola guztira. Ekimena Udaleko Ingurumen sailak, Eibarko Klub Deportiboko Mendi Talde-kekin eta Debegesarekin batera antolatutako Zuhaitz Egunaren harira egin zan.

IGOR ATXA MANTECON I. URTEURRENA (2018-III-28)



*"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da,
galtzea hainbat zailagoa,
eta ahaztea ezinezkoa"*

ZURE LAGUNAK





Alexandra Oliveira,
gure astekaria eskuan
duela Ekhi Belar

Brasilen bihotza, Eibarren etxea

Zarautzen zazpi urte bizi izan ondoren, Alexandra Oliveira Brasilera itzuli zen ama gaixo zegoelako. Bere herrialdea izanik eta familia han bizi bada ere, bertan ez zuen nahi bezala bizitzeko behar zuena aurkitu eta Euskal Herrira itzuli zen orain dela bost hilabete. Baina ez Zarautzera, Eibarrera baizik. Ilea-paintzailea ofizioz, bizitza berria hasi du senarrarekin eta hiru alabekin gure artean.

Rondoniako landaretza

Alexandra Brasilgo Rondonia estatuan jaio zen. "Amazoniatik hurbil dago, Bolivia ondoan". Lurraldea deskribatzeko orduan, Alexandrak ez dauka zalantzarik. "Ederra da". Landaretza ikusgarria dago, "oso berdea da". Zentzu horretan antzekotasunak aurkitu ditu Euskal Herriarekin, baina ez da gauza bera. "Hangoa landaretza zabartsuagoa da, toki batzuetan ezin zara sartu ere egin dagoen landaretzarengatik".

Amak baino haurtzaro hobea

Brasilen egon den bitartean Rondonia estatuan bizi izan da beti, baina toki batetik bestera ibili zen txikitari. "Amak haurtzaro zaila bizi izan zuen eta bizitza hobea eman nahi izan zigun anai-arrebei". Nekazaritza, abereak zaintzea eta "gure diruaz bizitzea" zer den erakutsi zien amak, eta bere nahia bete zuela esan daiteke. "Pertsona adeitsu eta lasaiak gara, eta ondo bizi izan gara".

Alabarentzat bizitza hobea

Hogei urterekin haurdun geratu zen eta Rondoniako basoak Zarauzko olatuekin aldatu zituen. "Nire alabari bizitza ona eman nahi nion eta han ez nuen aukera askorik ikusten. Ez nuen alabaren aitarekin egon nahi, berak ere ez, eta nire esku hartu nuen ardura guztia. Eta anaia Zarautzen bizi zenez, Euskal Herrira etorri nintzen". Ez zen batere erabaki

erraza izan, urtebete zuen alaba Brasilen geratu behar izan zelako. "Bihotza hautsi egin zitzaidan. Gainera, alabaren urtebetetze egunean egin nuen bidaiari", dio hunkituta. "Orain hemen utziko duzu, baina etorkizun hobea edukiko duzue hara joanez gero", esaten zion amak. Pentsamendu horrekin iritsi zen Zarautzera.

Familia Zarautzen

Urte bi egin zituen alaba ikusi gabe. "Brasilen ezagutu nuen gizon batekin maitemindu nintzen Zarautzen eta berari pena handia ematen zion alabarengandik hain urrun egoteak". Beraz, dirua aurreztu eta alaba ekarri ahal izan zuen. Zazpi urte egin zituzten Zarautzen eta beste alaba bat jaio zen bertan, baina handik bi urtera ama gaixotu egin zen eta Brasilera itzultzea erabaki zuten, "ama zaintzea tokatzen zitzaidalako". Gainera, opari

batekin joan zen, haurdun itzuli zelako Brasilera. Hirugarren alaba.

Berriz Euskal Herrira

Rondonia Brasil iparraldeko estatu aberatsenatarikoa da, eta nekazaritza eta egur-industrian oinarritzen da hango ekonomia. "Pozik itzuli nintzen, zazpi urte handik kanpo egin nituelako, baina diru kontuetan ez zen itzulera ona izan". Lan asko egiten zutelara dio, baina zerga asko ordaintzen zituztela baita ere. "Nire alabei ezin nien Euskal Herrian zuten bizitza eman. Osasun- eta hezkuntza-zerbitzuak eskasak ziren, segurtasun arazoak zeuden... eta Euskal Herrira itzultzea erabaki genuen". Bost urte eta gero Zarautzera etorri ziren, "baina herria asko garestitu da urte hauetan". Beraz, lehengusina Eibarren bizi denez, hona etorri ziren orain dela bost hilabete. "Asko gustatzen zait mendiz inguratuta bizitzea. Orain benetan pozik nago".

"Educação vem do berço"

"Hezkuntza sehaskatik dator"

“Itzali argia naturaren alde eta egizu bat Planetaren Orduaren erronkarekin!” izango da aurtengo lema denok planetaren alde egin beharreko keinu txikia egin dezagun. Bihar, hilaren 30ean, arratsaldeko 20:30etik gaueko 21:30era, egingo da ekimena. Eibarren, kasurako, Udalak Untzaga plazako eta udaletxearen alboetako fokua zein erlojuko eta arkupeko argia itzaliko ditu klima-aldaketaren kontrako borrokaren keinu sinboliko gisa. Horrez gain, nahi duten herritar, enpresa eta elkarte guztiek dute ingurumen ekimen horretara batzeko aukera <http://horadelplaneta.es/orrialdean>. Aurten izena eman daiteke hauetako hiru erronketako batean: plastikorik gabeko egunaren erronkan, haragirik gabekoenean edo isurketarik gabekoenean.

Planetaren Orduarena aldaketa klimatikoaren aurka eta natura babes-teko munduan egiten den ekimen globalen eta nagusia da. Planetaren Ordua orain dela 12 urte Sidneyn sortutako ekimena da, lurtarron (gizatiarren) arreta deitzeko asmoz. Keinu txiki bat besterik ez zen, etxebizitza, denda, eraikin eta monumentu nagusiak ordubete itzaltzeko; baina keinu txiki horrek indarra hartu zuen

Ordu aldaketarekin jarraituko dugu 2021era arte gutxienez

Gaur egun indarrean dugun ordu erabilerarekin (urtean bitan aldatuz erlojua) jarraituko dugu oraingoz. Espainiako Gobernuak izendatutako ordu aldaketari buruzko aditu batzordeak eskuak garbitu ditu eta Europako Batasunak ezarritako epemuga berria (2021ean) baliatuko dute luzapena eskatzeko. Badira 30 urte gaur egungo ordu erabilerarekin dihardugula, Alemaniarekin bat datorrena eta jatorria frankismoan duena. Bruselak ordu erabileraren finkoa aukeratzeko dei egin bazuen ere, horrek ekonomian, osasunean eta sustrai sendoko ohituretan duen eraginak badirudi beldurtu dituela herrialde guztietako adituak posizionatzeko orduan. Aditu gehienak neguko ordutegia urte osora zabaltzearen aldekoak dira, baina eguneko jarduera goizago hasi eta goizago amaitzearen aldekoak,



eta mugimendu globala bihurtu. 17.000 monumentu eta eraikin nabarmenak itzaliko dira bihar ere 188 herrialdetako milaka hirietan, “aldaketa klimatikoa aldatzeko” herritarrek, enpresak, udalak eta erakundeak inplikatu.

Gaur egun Planetaren Orduak ekimen zuzenak sustatzen ditu aldaketa klimatikoari aurre egiteko eta kontserbazioaren aldeko ekimenak garatzeko. Habitat asko suntsitu dira, kutsadurak ere gora egin du, baina bizitzaren dihardugun trantsizio ekologikoa geldiezina dela diote inplikaturako erakundeek.

2007an Sidneyn abiatutakoak lau urte-

rako, 2011rako, 135 herrialdetako 5.250 hirik Planetaren Orduarekin bat egitea ekarri zuen. 2014an aldaketa klimatikoaren gaia mundu guztira zabaldu zen Nazio Batuen Aldaketa Klimatikoaren Goi-bileran. 2016ko Pariseko Hitzarmena historikoa izan zen, negutegi-efektuzko gas-emisioak gutxitzeko eta aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzeko, “*itxaropenarentzat lehen urratsa bihurtuta*”. Hor erabaki zen lurrraren tenperaturaren batzbesteko igoera ezin zela gradu eta erditik edo bi gradutik pasatu. 2017an geldiezinezkoa bihurtu da mugimendua, nahiz eta AEB-k Parisko Hitzarmenetik irten.



udako arratsalde argitsu luzeak asko esker-tzen ditu jendeak eta, zer esanik ez, turismo arloan dihardutenak.

Bihar, beraz, Planetaren Orduaren atzetik ordu-aldaketarena etorriko da, jende askok gustura hartuko duena, ordubete gutxiago lo egin arren, trukean eguna luzatuko delako. Gure ordu naturaletik bi ordu aldentuta egongo gara uda osoan, urriaren azken asteburuan berriro ordularia ordubete atzeratu arte. Hurrengo bost hilabeteetan Euskal Herrian GTMGreenwicheko meridioaren ordu adierazleak finkatzen duenarekiko, hau da, Erresuma Batuekiko eta Portugalekiko, esaterako, ordubeteko desfasea izango da bakarrik.

Adituek argia hobeto aprobetxatzeko neguko ordutegiaren alde egin arren, euren botoa eman duten herritar gehienek udako

ordutegiaren alde egiten dute ia Europa guztian. Aukerak, guztira, lau izango lirateke gurean: udako ordutegiari jarraitu urte osoan (hori proposatzen du Bruselasek), neguko ordutegiari lotu urte osoan, orain artekoarekin jarraitu (Europako ordutegi nagusia deitutakoarekin) edo, azkenik, Europa Mendebaldeko ordutegira egin jauzi, hau da, Portugal eta Erresuma Batukoa hartu. Espainiaren kasuan, egia esan, badira motibak zalantzak izateko, Balear Uharteak eta Galiziaren mendebaldearen artean ordu eta erdiko aldea izan daitekeelako eguzkia irten eta ipintzen den orduen artean. Kanariar Uharteetan zer esanik ez! Horregatik dute, bestela ere, beste ordutegi bat.

Kazetari moduan definitu dugu Mateo Guilabert Lopetegi, baina errenazimenduko gizona dirudi. Berriemailea, esataria, musikaria, argazkilaria, tailerreko behargina eta mila saltsatoko perrexila izan da (eta izaten jarraitzen du). Pribilegiozko memoria duen gizona, istorio eta pasadizo ugari ditu buruan, eta Eibar KE-k eduki nahiko lukeen artxiboa dauka etxean. Beti umore onez eta izaera maitekorrearekin, omenaldi asko jaso ditu 90 urtetan. Orain dela pare bat aste jaso zuen bat, adibidez, Untzagako jubiletzeko lagunen eskutik Errioxara egindako txangoan. Ez da azkena izango.



MATEO GUILABERT (kazetaria):

“Inoiz ez dut ortografia akatsik egin”

- Zer moduz Errioxa aldean?

laz San Asension egon ginen pertsona nagusientzako udalekuetan eta toki berean pare bat egun pasa genituen orain dela bi aste. Rodeznon bazkaldu genuen eta uste dut inoiz ez dudala hainbeste janari ikusi. Gainera, bodega batean ardoa dastatzeko aukera izan genuen. Ez nuen omenaldirik jasotzea espero. Jatetxean bazkaltzen zegoen jendeak ere txaloak eskaini zizkidan eta emozionatu egin nintzen. Mahairik mahai eskerrak eman nizkien, ez nituelako ezagutzen, eta oraindik txalo gehiago egin zidaten. Oso pozik sentitu nintzen. Txaloez gain hiru koloredun boligrafo bat ere oparitu zidaten “no-venta” inskripzioarekin, irratian egin nuen txantxa baten harira.

- Asteburu betea, beraz?

Guztiz! Eta itzuleran Ertzainak autobusa geratu zuen. Nire ustez Errioxatik zetorren autobusa ikusi eta barruan mozkor batzuk joango zirela pentsatu zuten, baina gu lasai geunden. Behin bakarrik mozkortu naiz, 10 urterekin.

- 10 urterekin?

Meza-mutila nintzen eta Domu Santu egun batean mezako ardo gehiegi edan

nuen. Gozoa zegoen! Ez zitzaidan ezer gertatu, baina hurrengo egunean amak egurtu egin ninduen. Orduetik, ez naiz gehiago mozkortu.

- Untzagako jubiletzeko lagunena ez da jaso duzun omenaldi bakarra izan. Gauzak ondo egin dituzun seinale?

Berrogei plaka baino gehiago ditut etxean. Gipuzkoako Kirol-Prentsaren Elkartearena, As Burgas Galiziako Etxearena, Txirindulari Elkartearena... eta azaroan Bakailauaren Ohorezko Kofrade izendatu ninduten. Gainera, herriko sari nagusia eta Eibar KE-ren urrezko domina ere eman didate.

- 90 bete dituzu eta martxa betean jarraitzen duzu. Aktibo egotea berebizikoa da adin horrekin sasoi betean egoteko?

Baietz uste dut. Jubiletxean tragoak hartzen handik sartu eta irteten direnak ikusten egoten direnek pena ematen didate. Ez daukate bestelako helbururik bizitzan? Nik hainbat gauza egiten ditut eta ahal dudan

toki guztietan kolaboratzen dut. Eibarko Artisten Elkarteko kidea naiz, nahiz eta margotzen ez dudan; martitzenetan Radio Eibarren egoten naiz; jubiletzeko ekintzetan laguntzen dut argazkilaria moduan... ez dut ezer kobratzen, baina ez dut lan horrek egiteari utzi nahi, asko gustatzen zaizkidalako.

- Buru-argitasunez beteta iritsi zara 90. urteurrenera. Nola gogoratzen duzu Bartzelona utzi eta Mendigorriara joan zinen sasoi hura?

Aita 1936ko uztailean 3an hil zen, Gerra Zibila hasi baino hamabost egun lehenago, eta nik 7 urte nituen. Gosearen belaunaldikoa naiz. Gaur egun alargunek pentsioa kobratzen dute, txikia bada ere, baina sasoi hartan hori ere ez. Gerra Zibila Bartzelonan bizi izan genuen eta lehen bonbardaketa ondo gogoratzen dut. Amaren gurasoak Mendigorrian bizi ziren eta sasoi hartan %100ean nekazari-herria zenez, errazagoa zen patata eta azalore bana han aurkitzea Bartzelonako kaleetan baino. Hara joan ginen ama, arreba zaharra, anaia gaztea eta laurok. Amak aberatsen arropak garbitzen zituen errekan eta eskolatik irteten ginenean lagundu egiten genien. Eltze batean ja-

“Sasoi berrietara egokitzen jakin dudala uste dut”

naria prestatzen zigun eta ordutik ezin dut janari beroa jan.

- Zergatik?

Oliorik ez genuenez ardi-gantza erabiltzen genuen kozinatzeke eta janaria oso bero jan behar genuen, ia irakiten, bestela haginak itsatsita geratzen zitzaizkigulako.

- Musikak Zarautzera eramán zintuen. Nola?

Zarauzko Bandaren zuzendaria Artajonakoa zen, Mendigorria ondoko herri batekoa, eta lurrak zituen han. Zarauzko uda sasoi amaitzean lurrek ematen zioten etekinak jasotzera joaten zen eta gure musika irakaslearen lagun mina zen. Antza denez ni nabarmendu egiten nintzen eta Zarautzera eramán ninduen 19 urterekin.

- Zer moduz Zarautzen?

Musikoa izateaz gain Enrique Keller enpresan egin nuen lan. Armonikak afinatzen nituen, eta entzumen ona eta esku finak nituela esaten zuten, musikadun-kaxak afinatzen hasi nintzen. Aurretik ez nuen inoiz musika klasikoa jo, jaietan jotzen zen musika dantzagarria bakarrik, eta Donostiako kontserbatorioan ikasi nuen. Bestetik, Javier Escudero maisuaren anai bik nirekin egiten zuten lan eta sasoi hartan 'Illeta' obra konposatzen zegoenez, tronboiarekin laguntzen nuen. Gainera, armonia klaseak ere eman zizkidan.

- Zarautzetik Eibarrera etorri eta hemen geratu zinen gaur egunera arte. Zerk lotu zituen Eibarrera?

“Oso pozik nago daukadan adinarekin eta are pozago Eibarko jendeak maite nauelako”

Zarautzen egindako lagun bat Eibarko Ayra Durexen hasi zen lanean eta zera esan zidan: “lan zikin baterako mutil garbi bat behar dut, eta zu zara egokiena”. Eta egia zen, oso toki zikina zen benetan. Urte bi egin nituen han.

- Eta gero?

Sasoi hartan Mateo Muxika Urrestarazu gotzaina Zarautzen bizi zen eta harreman estua genuen. “Izenkide gailena”, esaten zidan. Hainbat bikote ezkondu zituen, tartean Alfako administrari kontseiluko presidentea, eta nire gainean egin zion berba. Alfán lanean hasi nintzen eta 25 urtez egon nintzen han.

- Alfatik kazetaritzara. Nola eman zenuen jauzi hori?

El Diario Vascoentzat idazten nuen eta 13:30eko autobusean eguneko informazioa bidali behar genuen. Hortik aurrera gertatzen zena bi egun geroago egunkarian argitaratzen zen. Gainera, egunkarirako idatzitako albisteak Radio Juventud de Eibar irrati bidaltzen nituen, ezer kobratu barik, ez nintzelako politikaria eta ez nuelako jendeak horrekin lotzerik nahi. Franco hil zenean Ra-

dio Nacional delakoak Radio Juventud irratiak hartu zituen eta lan-eskaintza egin zidaten. Alfán baino gehiago kobratzea eskaini zidaten, beraz, onartu egin nuen.

- Nola trebatu zinen kazetari moduan?

Hemen oso berandu hasi ziren kazetari-tza tituluak eskaintzen eta nik Mendigorriako eskolan ikasitakoarekin egin nuen aurrera. Hori bai, inoiz ez dut ortografia akatsik egin.

- Zergatik amaitu zenuen irratiko lana?

63 urte nituenean Madrilgo zuzendaritza-kide batek erabaki zuen 40.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan ez zela irrati-rik egongo. 24 irrati-etxe itxi zituzten, tartean Eibarkoa. Zamorara bidali nahi izan ninduten eta ni joateko prest negoen, baina familiariaz ez zitzaion ideia ona iruditu.

- Urte asko izan dira kazetaritza munduan. Nola egokitu zara sasoi berrietara?

Kazetaritzan lan egiteko gaur egun dau den erraztasunek enbidia ematen didate. Informazio asko daukagu eskura. Lehen, adibidez, orri bat betetzeko arazoak izaten genituen batzuetan. Sasoi berrietara egokitzen jakin dudala uste dut.

- Iragana errepasatu dugu, baina nola ikusten duzu etorkizuna?

90 urte bete ditut eta ez dut etorkizuna begiratzen, momentua bizi eta gozatzen dut. Oso pozik nago daukadan adinarekin eta are pozago Eibarko jendeak maite nauelako.



Untzaga Jubilatutakoekin Rodeznon, Mateo Guilaberti egindako omenaldi egunean.

Ikasten alkartekuak antolatuta, martitzenian San Andres eliza barrutik ondo ezagutzeko primerako aukeria egon zan, Artearen Historixan doktore dan Satur Peña Puente eibartarraren eskutik egin zan bisita gidatuan. Ego Ibarra batzordiak 2008xan kaleratu eban Satur Peña ikerlarixaren "San Andres de Eibar" liburua, Garay argazkilari entzutetsuak 1985ian etara zittuan argazkixekin lagunduta eta hortxe dagoz jasota San Andres elizaren inguruko ziheztasun eta bitxikerixa guztiak, baitta gehixenondako guztiz ezezagunak diran hamaika kontu be.



Satur Peña aste honetako bisitan.

Gure monumentu nagusiñaren bihotzera bisita

Ordubete pasatxoko bisitan, baiña, liburuaren 220 orrixetan bildutako guztiak kontatzeko modurik ez dago eta, horregaittik, historialarixak batez be erretaula nagusiaren inguruko azalpenak emon zetsazen bisita egittera animau ziraneri. Juandakuen artian, gaiñera, aniztasuna izan zan nagusi. Izan be, ekitaldixaren antolatzailliak Ikasten, Esperientzia Eskolako ikasle ohien alkartekuak izanda be, bisita herritar guztieri zabalik egin zanez, ikasle gaztien

talde batek be gelatik kanpora parrokiaren inguruan gehixago ikasteko aukeria aprobetxau eban. Zaharrak eta gaztiak, danak interes haundixarekin entzun zittuen ikerlarixak kontautako guztiak.

Eibartik kanpora bizi dan edozein herrira bisitan etorri eta zer ikusi leikian galdetuz gero, gehixenak San Andres elizia ikustera juateko esango gentsan. Eta ez da harritzekua. Guria hiri industrialia izanda, herrixaren aberastasuna sasoi bateko taillaretatik sortu zan gehixago gure patrimo-

nixo historikotik baiño. Erakusteko moduko eraikin eta monumentuen zerrendia nahiko laburra dala begibistakua da, baiña edozelan be argi dago San Andres elizia ezin leikiala zerrenda horretatik kanpora laga. Bardin detsa fededuna izan ala ez.

San Andres elizak Monumentu izendapena jaso eban Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 1eko 21/2005 Dekretuaren bidez, Saikaturtako Kultura Ondasun gisa eta, zailantza barik, ondo merezittako izendapena izan zan hori.



Bigarren maillako atiaren gaiñian San Gabriel goi-aingerua ageri da zaintzaile modura.



Andres de Araozek detaille haundixarekin landu zittuan erretaulan daguazan reliebiak.




Erretaularen ertzetan daguazan kariatide eta bestelako irudixak ikutu berezixa emoten detsa.



San Andres elizako atietako baten gainian San Pedroren harrizko eskulturia ikusi leike, apaingarri modura.



Brontzeko bi arrano dagoz aldare inguruan, atril modura erabiltzeko. Ikerlarixen arabera, gitxitan ikusten dira holako pieza ederrak.



San Andres elizako eskulturen artian badago erromaniko bat. Gaur egun, elizan sartu eta eskumatara ikusi leike.

Peñak azaldu ebanez, *“parian dakagun San Andres elizako erretaula edar hau jatorrizkoa da, sortu eben moduan ikusten dogu, hasieratik euki daben itxuriari eutsi detsa-eta. Halanda be, esan biharra dago hasieran erretaula beste toki batian eguala, jatorrizko distribuziñua ez zan gaur egun ezagutzen doguna. Horregaittik, toki aldaketiak eraginda, zati batzuk egokitu bihar izan zittuen, baiña ixa ez da ezer igeritzen. Bestalde, erretaula hau, beste guztiak lez, bakarra da. Izan be, horrelako lanak originalak izaten ziran beti”*.

Neurrixari begira, oso haundixa da: erdixan 17,88 metroko alturia daka eta 9,04 metroko zabaleria. Erdiko zatixak 4,29 metro dakaz eta albuetan 3,47 metro (ezkerreku) eta 3,57 metro (eskumakuan). Erretaulan gora egin ahala, gaiñera, neurri horrek be igotzen doiaz.

Erretaula holan, osorik dagan pieza baten modura ikustera ohittuta egon arren, historialarixak argittu ebanez *“zati-ka eta epe diferentietan”* eginda dago. Bere berbetan, *“lehen fase batian erretaularen lehen bi gorpuak, Araozenak izenarekin ezagutzen diranak egin ziran. Eta bigarren fasia Hilario de Mendizabalek eta Fernando de Arispek ixa bi mende geruago egindakua da”*.

Erabillittako egurrak be diferentiak dira: lehen fasian intxaurrendua erabilli eben eta bigarrenian, barriz, gaztaiñondua: *“Bixak dira egur onak, kalidadezkuak, baiña erretaula sitsak jaten ari dira eta, kasualidadia izan ala ez, gaztaiñondo egindako zatixetan kalte haundixagua egitten ari dira”*.

Bi fasetan egindako erretaula

Ikerlarixaren berbetan, *“1558xan ekin zetsen erretablua egitteko biharrerri eta horren arduria Andres de Araozi emon zetsen. Baiña agindutakua amaittu aurretik, 1563an, hil egin zan eta, handik urte batzuetara, 1585. urtian, semiak segidu eban aittak hasittakua eta oso azkar, 1587xan amaitzia lortu eban”*. Halanda be, erretablua guztiz amaittuta ikusteko ixa bi mende itxoin bihar izan zan, *“orduan sasoi oso normala zan holako gauzak pasatzia, dirua eguan bittartian azkar egitten ziran biharrak, baiña dirurik ez bazeguan dana geratu egitten zan, atzera be dirua euki arte”*.

Bigarren faseko lanak Hilario de Mendizabalek egin zittuan eta 1736xan hasi ziran. Edozelan be, begiratu azkar batian erretaula sasoi diferentietan eta zatika eginda daguala ikustia gatxa dala esan eban Peñak: *“Asko-asko fijatuz gero, figuretan daguazen detaillietan ezbardintasun*



batzuk ikusi leikez. Adibidez, Araozek egindako aurpegixetan, edo arropetan... Edozelan be kontuan euki bihar da Mendizabalek ez ebalaskatasun haundirik izan nahi eban modura jarduteko, aurretik egin da eguanari segitzeko agindu zetsen-eta. Halanda be, berak egindako zatixak bada-ka ikutu pertsonal eta berezixa. Sasoi hartan estilo barrokua zan nagusi eta, horrerri jarraituta, ertzak ez dira bestien igualak eta, horrerri esker, goiko alde horretan aire piskat emotia lortu eban”.

142 klabe sabaian

Erretaula albo batera lagata, San Andres elizari balixo berezixa emoten detsen beste elementu batzuk be badagoz. Adibidez, sabaia apaintzen daben klabe kopuruari zein irudixetan daken aniztasunari begira, San Andres Euskal Herriko elizen artian garrantzietsuenetakua da. Gora begiratu eta ondo fijatuz gero, erlijijiñuari lotutako irudixak (profetak, santuak...) profanuak diran beste batzurekin bat egitten dabela ikusi leike. Irudixak bittan banatuta ageri dira, gaiñera: gaur egunian ate nagusixa danetik gertuen daguana “alde zaharra” litzake eta bestia, egin ziran azken haunditze lanetan daguana, barriz, “alde barrixa”. Batian eta bestian daguazen ornamentaziñuak guztiz ezbarðiñak dira: alde barrixan sei klabe baiño ez dagoz, baiña zaharran izar itxuria dakan gangan daguazen lotura guztietan klabiak dagoz, figurekin apainduta daguazen 123 eta horrerri gehittu bihar jakozen beste 19, gurutzeta lorekin apaindutakuak.

Julen Arizaga, ingeniari industrialia:

“Jakinminak gidatu nau ikasketetan eta espero dut beti horrela izatea”

23 urte ez ditu oraindik Euskal Herriko Unibertsitateko Ingeniaritza Industrialeko azken promozioko lehenak. Julen Arizagak zilarrezko plaka jaso zuen, familiakoak lagun zituela, horretarako prestatutako ekitaldian, eta baita “aldizkari batean agertzeko eskubidea” ere. Ikastea, jakina, gustoko du, baina ez da horretara mugatzen: hori bezain ezinbestekoa ikusten du lagunekin egotea, kirola praktikatzea...

- Benetan ezustekoa izan zen zuretzat promozioko lehenengoa izatea?

Banekien nota onak izanda onenen arteko taldean izango nintzela, baina ez nuen espero lehenengoa izatea. Graduazioa martxoaren 5ean egin genuen eta hamar bat egun lehenago esan zidaten niri zegokidala promozioko 1 zenbakia. Ez ahaztu 800 ingeniari graduatu egin ginela egun horretan.

- Unibertsitatera joan aurretik Eibarren ikasiko zenuen, ezta?

Bai, jakina. San Andres ikastetxean eman nituen lehenengo urratsak, gero Itzion jarraitu nuen eta, kanpora joan aurretik, Hezuntza Esparruan ikasi nuen.

- Injeniaritza aukeratzean, familiaren tradizioari jarraitu diozu?

Familian badago tradizioa, egia da, eta asko poztu dira nik hartutako erabakiarekin. Hala ere, gehiago izan da erabaki pertsonala: zalantzak izan nituen Fisika eta Ingeniaritzaren artean eta, azkenean, bigarrenaren alde egin nuen aukera gehiago ikusten nuelako ikasi eta proiektu bat enpresa batean

garatzeko, atzerrira bidaiatzeko... Fisika gehiago ikusten nuen Doktoradutza bat lortzera zuzendua. Ingeniaritza Industrialia orokorragoa ikusten dut.

- Ahalegin berezia eskatzen dizu Ingeniaritzak? Tarterik aurkitzen duzu deskonektatzeko? 24 ordutan zara ingeniari?

Daukazu denbora ondo antolatzea izan-go litzateke gakoa, errutinak asmatzea. Asteazkenean Bilbon ikasten dut, baina kirola egiteari, esaterako, garrantzi handia ematen diot, eta astean bi-hirutan igeri egiten dut, oinarritzakoa da niretzat. Lagunekin egotea ere ezinbestekoa da eta asteburuetan horretarako aprobetxatzen dut. Surfeatzea ere oso gogoko dut eta Deban Zarautzen... ez dut kalerik egiten.

- Bilbon bertan pasatzen duzu aste osoa?

Bai, badira hiru urte beste ikaskide birekin pisua konpartitzen dudala. Eurak ere Ingeniaritza ikasten dute eta elkarbizitza errazagoa egiten zaigu horrela: badakigu zer daukagun aurretik, horrek zer eskatzen digun... Bat Eibarkoa da gainera, bestea Zarauzkoa... Hirurak gabiltza Masterra egiten. Hala ere, lehen esandakoa: ikasi liburutegian egiten dugu, etxean badugu deskonektatzeko tartea.

- Atzerrian izan zara bestela?

Iaz Alemanian egon nintzen, sei hilabete, Erasmus modukoa egiten. Sei urte eman ditut dagoeneko alemaniera ikasten eta ondo etorri zitzaidan hobetzeko eta asignaturak ikasteko.

- Epe laburrera ipini diozu erronkarik zure buruari?

Ez. Lehen bost urte behar ziren masterra lortzeko, eta orain lau urte dira eta “habilitante” deitutako bi master, gero proiektua sinatzeko. Datorren urteari begira nago gehiago, Chicagon jarraitu beharreko ikasketekin. Computer Science edo intelijentzia artifizialari enfokatutako ikas-bideari jarraituko diot, batez ere programazioa ikasteko asmoarekin. Lan egin beharko dut, baina bada aurreratzeko aukerarik.



Bi ingeniari industrial: Julen eta bere aitaitxa.



- Non ikusten duzu zure burua hemendik urte batzuetara?

Urte eta erdi barru enpresa handi batean gustatuko litzaidake lan egitea. Kanpoan ere izango naizela uste dut, baina hemendik 20 urtera, esaterako, zergatik ez hemen bertan? Bidaiatzeko gustoko dut, baina surfean egiteko badago hau baino toki aproposagorik? Jakinmina badakit ez dudala galduko! Teknologia oso gustoko dut eta, berrikuntzak amaierarik ez duenez, sakontzen jarraitzea gustatuko litzaidake.

- Praktika-eta egitea tokatu zaizu?

Hiru hilabete ematen baduzu enpresa batean, horrek gero jarraikortasuna eskatzen du eta ez dut halako aukerarik izan. Ikasturte bakoitzaren bederatzik hilabeteak ikasteari eman dizkiot eta horrek eskatzen duen ahalegina egiten dut.

Sopelan surfa egiten eta Getaria-Zarauz zeharkaldia amaituta.



Untzaga Euskalgune bihurtuko da apirilaren 5ean

DBH-ko 3. mailako ikasleak *eusLider* egitasmoa lantzen hasi ziren ikasturte hasieran hizkuntza ohiturak aldatzeko asmoz. AEK-Ahize hizkuntza zerbitzuak, Eibarko Udalak, Akebai plataformak eta ikastetxeak dihardute elkarlanean proiektu honetan, eta hilabete hauetan zehar egindakoa herriari erakutsi ahal izango diote apirilaren 5ean. Izan ere, Euskalgunea egitasmoa antolatu dute, euskararen erabilera modu dibertigarri eta parte-hartzailean bultzatzeko ekimena.

Eibar BHI (Jardinetako eta Arratebideko zentroak), Aldatze eta La Salle-ko DBH-ko 3. mailako ikasleek hartu dute parte *eusLider* egitasmoan, baina hiru fasetan banatu da ikasturteko lana. Lehen fasean, erakundearen atxikimendua eta parte hartzaileekin jakinmina asetzeko kanpaina egin zuten. Bigarren fasean proiektuaren arduradunek aurrez aurreko hiru saio egin zituzten ikasleekin, eta jendearen portaeran aldaketa eragin dezaketen faktoreak lantzeko informazio esanguratsua eman zitzaizkien saio horietan, aldatzeko motibazioa landu eta horren beharra ikusarazteko. Eta hirugarren fasean, *eusLider* bezala jarraitzeko izena eman zuten boluntarioekin, aurrez aurreko beste hiru saio egin zituzten. Saio horietan ekintza sozial bat garatzeko lanketa egin zuten eta horren emaitza da *Euskalgunea*, apirilaren 5ean Untzagan egingo duten egitasmoa.

Aimar Osa, Lucia Amas, Judith Leiton, Leire Gomez eta Leire Etxebarria dira *Euskalgunea* antolatzen ibili diren hainbat *eus-*

eusLiderrak



Lider. Ginklikana, Euspintxo lehiaketa, *Eusmoda* desfilea eta beste hainbat proba egiteko aukera egongo da *Euskalgunean*, eta *photocall-a* ere jarriko dute. “*Kutxa batean erroa zaharrak jarriko ditugu eta jendeak argazkia egin ahal izango ditu erroa horiekin*”, esan digu Etxebarriak. “*Gero argazkiak ‘...eta kitto!’-n erakustea pentsatu dugu*”.

EusLiderrak bi hilabete daramatzate proiektu honetan lanean eta gogotsu daude apirilaren 5eko zitaren aurrean. “*Oso itxura ona dauka*”, Osaren iritziz. Ikasturtean zehar *eusLider* egitasmoarekin konpromezua hartu dute *eusLiderrak*, eta nahiz eta ikastetxe ezberdinetakoak izan, bikain moldatu dira *Euskalgunea* antolatzeko. “*Polita da, gainera, pertsona*

gutxiren artean Euskalgunea bezalako gauza handi bat antolatu izana”, Amasek esan digunez.

EusLiderrak Euskalgunearen berri eman dute ikastetxeetan eta ikasleek izena eman dute Untzagan egingo diren probetan parte hartzeko. Dena dela, herritar guztiak Euskalgunera gonbidatzen dituzte. “Edozein joan daiteke, ikustera behintzat”, esan digu Etxebarriak. “DBH-ko 3. mailakoek hartuko dute parte ekintzetan”, Amasen berbetan, “eta Euspintxo lehiaketan parte hartzeko izena eman behar izan badute ere, beste probetan edozeinek hartu dezake parte”. Azken finean, euskera modu dibertigarrian erabiltzeko antolatu dute Euskalgunea. “Euskeraz ondo pasatu nahi dugu”, Osak dioenez.




“DBHko 3. mailakoek hartuko dute parte ekintzetan eta, Euspintxo lehiaketan parte hartzeko izena eman behar bada ere, edozein joan daiteke ikustera”

*Iñatz Etxeberria*

Teknikari ikuspuntua alde batera utzita, pertsonalki eskertzen dut irisgarritasun arloan horrenbesteko obrak egitea

Irisgarritasuna Eibarren

Argi dago hauteskundeak ate joka ditugula, egunero esnatzen baikara herrian egin behar den beste obra berriren baten al-bistearekin. Zentzuzko edonork ikus dezake hori. Baina kritika eta kointzidentziak alde batera lagata, garrantzitsuena da Eibarren herritarren bizi kalitatea hobetzeko lanak egiten direla. Zer demontre axola du obrak noiz egingo diren, agian lehenago egin beharreko obrak dira eta... baina bada toz eta aurreikusita daude herria birmoldatzen joateko. Hori da onena. Hor daukagu igogailuen kasua; laster egongo da zabalik Julian Etxeberria kalea eta Jardinetan lotuko dituen, adibidez. Badakizue zenbat jende erabiliko duen instalazio hori eskoletara joateko? Ez da auzokideentzat bakarrik, herri guztiarentzako baizik.



Horrela bada, denok aurrera begiratu beharko genuke eta gure auzorako proiektuak eskatu, bestela badakizue, eskertzen ez duenak ez duela ezer lortzen, horrela ba, Mekolak irisgarritasun hobekuntzat izango ditu eta baita Amañak ere, beste auzo batzuen artean.

Teknikari ikuspuntua alde batera utzita, pertsonalki eskertzen dut irisgarritasun arloan horrenbesteko obrak egitea. Gure biztanleria gero eta zaharragoa da eta, agian, hainbeste maitate dudana aitxixa Bomba buruan dudalako esaten dut hau, gabon gau guztietan berdina esaten digulako: *"Etxera eskilara mekanikoak emetatu baino lehen joan behar dut"*, eta denak arrapataka afaltzera, hau komedia!

Biztanleriak hobekuntza hauek behar ditu eta jada ohituta gaude horietara. Kontuan izan hemen aspaldiko kontua dela hau. Beste herri batzuetan, berriz, orain hasi dira istorio hauekin. Zortea gurea. Bai horixe!

*Jon Legarda*

Marketing eta zientzia fikziozko filmetan erabiltzeko denak balio du, baina gauza garrantzitsuentzat pertsonak ezin dira ordezkatu

Industriaren Desdigitalizazioa

Azkenean gertatu da ba. Badaukagu sistema adimentsuen mugak zeintzuk diren benetako froga larria. Dakizuenez, azken hilabeteetan bi hegazkinen istripuen arrazoia azken generazioko sistema adimentsuen funtzionamenduetan egon da. Beno, ikerketak esango digu zeintzuk izan diren arduradunak: formazio falta, pilotu automatikoaren funtzionamendua, edo biak batera. Dirudenez (hau Interneten irakurritakoa da, beraz, kontuz) distantzia neurtzen zuen sensore batek ez omen zuen ondo funtzionatzen eta erabakiak hartu behar zituen ordenagailuari informazio okerra bidali zion. Gora egin beharrean, beherantz egiten zuen hegazkinak aireratzean. Estatu Batuetan, dirudenez, bertako pilotuek bazekiten ez zuela pilotu automatiko horrek ondo funtzionatzen eta deskonektatu egiten zuten (ez omen zen erraza deskoneksio hori, antza denez). Baina istripuetako hegazkinen pilotuek ez zekiten nola egin eta informazio-liburua irakurtzen zeudela jo zuten lurra hegazkinak.

Kasu horrek inpaktu ikaragarria eduki du eta edukiko du hurrengo urteetan. Ez bakarrik egon diren galerengatik, baizik sistema

adimentsuen erantzukizuna norainokoa izan daitekeen markatuko duelako. Azken hilabeteetan ere egon dira beste adibide batzuk kotxe autonomoen inguruan. Istripu ugari egon dira sistema adimentsuek ez zutelako ongi bereiztu benetan gertatzen ari zena, baina kasu horietan gidatzaileek zuten azken erantzukizuna.

Guzti horrek, baina, gogoeta oso garrantzitsua dakarkigu. Sistema adimentsuek ez dute guztietarako balio, ezin dute dena egin eta ezin dute dena erraztu. Badira funtzio batzuk pertsonak baino hobeto egin ditzaketenak; adibidez, informazio konplexua eta ugaria oso bizkor eta zehatz-mehatz aztertzea. Baina azterketa horren emaitzak erabaki bat dakarrenean, eta erabaki horren ostean pertsonen bizitza, inguruneari kaltea edo diru-galerak badaude, orduan pertsona baten erabakia egon beharko da beti.

Marketing eta zientzia fikziozko filmetan erabiltzeko guztiak balio du, baina gauza garrantzitsuentzat pertsonak ezin dira ordezkatu. Ez dugu ahaztu behar gizakia inoiz ezagutuko dugun makinari perfektuena dela, nahiz eta ingeniariak hori lortzea saiatzen garen.

EZTEI eta JAUNARTZE



Argazkia: Josu Torrealday

GEHIGARRIA

41. zenbakia 2019ko UDABERRIA

M A R S I



T. Etxebarria, 5
943201626
639403457



San Juan, 1
943 20 33 29

Irudi



ROSANA
ILEAPAINDEGIA

943 120624

URKIZU PASEALEKUA, 7 - BEHEA



josutorrealday estudio
argazkilaritza fotografia

www.taomweddings.eus | www.josutorrealday.com
c/ Fermin Calbetón nº4, 1º A3 20600 EIBAR (GIPIZKOA)
6 7 9 9 5 0 8 5 8 j o s u @ t a o m . e u s

“TIRO PITXOI JATETXEA”

– Eguneko menua
– Asteburuko menua
– Menu bereziak
– Karta...

Arraten

– Ezkontzak
– Ospakizunak...

TERRAZA EDERRA BISTA PAREGABEEKIN 943 20 88 59

fasprint
inprimategia

Aukera zabala ezkontza gonbidapenetan
Gonbidapen pertsonalizatuak argazkiarekin

Serigrafia

Telf./Fax: 943 20 16 13 - Ego-Gain, 11 ac. - EIBAR
fasprintei@yahoo.es - www.fasprinteibar.com



Argazkia: Josu Torrealday

Azken hamarkadan ezteiak goitik behera aldatu dira. Egungo ezkongaiak natibo digitalak dira, eta haxe da egon den aldaketarik nagusienetakoa. Den-dena internet bitartez bilatzen dute eta guztia sare sozialetan publikatzen dute. Helburua ospakizun original bat egitea da. Ezkongaien ezaugarri dagokienez, senargaiek batzbeste 32 urte izaten dituzte, eta 31 emaztegaiek. Gehienak aurretik elkarrekin bizi ziren, eta 20.500 euro inguru gastatzen dituzte ospakizunean.

Lehen, ezkongaiak 20 urte ingururekin ezkontzen ziren. Gaur egun ekonomikoki solbenteagoak dira, eta hori igartzeko da gonbidatuen zerrendetan konpromiso gutxiago eta lagun gehiago daudela ikustean.

Zeremonia erlijiosoak atzera egin du. Gehienak irailean ezkontzen dira eta bakarrik %9k egiten dute ezkontza-eske formala gurasoen aurrean. Hori bai, %52k eutsi egiten diote eraztun eta erlojuaren arteko trukeari konpromisoa adierazteko.

Ezteia *online* egiten da gaur egun. *Online* antolatzen dute, beste bikote batzuei iritzia eskatzen diete, merkantuan dauden hornitzaileen inguruko informazioa eskatzen diete...

New York, kruzeroak eta Tailandia

Letra gotikoekin egindako tarjetoak eta gramaje handiko sobre lakatuak zaharkituta gelditu dira. Gaur egun WhatsApp bitartez edo posta elektronikoz egiten da gonbidapena, sarritan ingelesezko “Save the date” bezalako berbak edo esaldiak erabiliz.

Hurrengoa opariaren kontua da. Jadanik ez da beharrezkoa denda edo biltegi handi batera joatea kafetera edo loreontzi bat enkargatzera. Orain dena bidaiaren inguruan mugitzen da. Hotelaren edo abioiaren gastuak gonbidatuek ematen duten diruari esker ordaintzen dira.

Bauskain

FINCA

IRVŌIA
GRUPO
grupoiruna.net



"Esklusibotasuna, pribatutasuna
eta gastronomia bikaina
eskaintzen dizu
Finca Bauskainek
antolatzen zabiltzan bataio,
jaunartze edo ezkontza
ospatzeko. Etorri eta ezagutu"



Markina Xemein

Telf. 94 424 9059

bauskain@grupoiruna.net

www.fincabauskain.com



Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

CAPI

www.capiestetica.es

BERRIA!!!
BEGI ingurunerako tratamendua

LIFTING tratamendua

BETILE LUZAPENAK

LASER DEPILAZIOA
5 saioretarako **BONOA 99€**
Hanka osoak + izartekak + besapeak **95€**

Hanka osoak 60€ Bizkarra+Lunbarra 50€
Izartekak+Besapeak 50€ Espaina/Begitarrea 10€€
Bularra+Abdomena 50€ Zona/saioko 30€€

LIFTING

Khôl Estilistak

Azido hialuronikoko ile-tratamendu berriak

Khôl Estilistak

Estaziño, 4 943 254776

Bidebarrieta, 28 943 20 79 73

San Andres gozotegia

Ezkontzetarako tartak eta opariak prestatzen ditugu

943 20 88 47 645 67 85 76

El Corte Ingles-ean

El jardín de tulipa

FLOWERS&DECO

New York da ezkonberriek gustokoen duten helmuga. Bikoteen %15k Empire Staten amaitzen dute, Manhattan kontenplaten. %10 kruzero batera joaten dira "piña colada" dastatzera, eta %9k Tailandiako "pad thai"aren aldeko apostua egiten dute. %8, antzina bezala, penintsula iberikoan gelditzen dira.

Interneteko zenbait webgunetan mahaiak birtualki antolatzeke aukera ematen dute. Gonbidatuaren izena ematen zaien pertsonaiak sortzen dira, eta baita ezkontzaren bat ere: bertan norberak mahaiak nahi duen bezala antolatzen ditu.

Oroitzapenek ere eboluzionatu egin dute. Argazki-albuma ez zaio edozeini enkargatzen. Bikote gehienek profesional bat kontratatzen dute, eta oso maila handiko ezkontzetan ezin dira falta dron batetik ateratako argazki eta bideoak.

Argazkiak denbora errealean igo

Gaur egungo argazkilari profesionalek espontaneitatea eta posadurik gabeko argazkiak bilatzen dituzte. Dena dela, askotan argazki onenak gonbidatuek egiten dituzte euren mugikorrek. Detailerik ihes ez egiteko, bi aukera daude: jendeak bere argazkiak Instagramera igotzea "hashtag" berbera erabilia, edo aplikazio berezi bat erabiltzea. Kasu horretan, pribatua den galeria birtual bat sortzen da, eta ordenagailuko konexioaren bitartez denbora errealean proiektatu daiteke banketea. Aplikazio horrek aukera ematen du argazkiak modu desegokian igotzen ari den gonbidatua blokeatzeko.

EL VESTIDOR

Errebal, 14
607 926 886

f i elvestidor.eibar



ROCA

TEL. 943 20 80 06 CALBETON, 16 -EIBAR-

Ezkontza eta egun berezietan ZUREKIN!!



Eta lotsatienak motibatzeko, 'photocall'a indar handiarekin sartu da: betaurreko erraldoiekin, pirata partxe batekin edo apatxe lumekin posatu daiteke. 'Fotomaton' modernizatuak ere badaude, eta bakoitzak momentuan

eraman ditzake aurpegi arraroak jartzen lagunekin ateratako argazkiak. Ez dugu ahaztu behar gonbidatuen batzbesteko adinak behera egin duela.

Gauza guztiei buelta eman zaie. Gero eta gutxiago dira ezkonberriei arrosa botatzen dietenak. Lore-hostoak ere zaharkituta gelditu dira. Egun konfetia botatzen da gehienbat. Eta modan egon nahi baduzu, jendearen artean koloredun burbullak egiten dituzten tramankuloak banatu ditzakezu.

Otordu edo banketeko dekorazioa bonbila txikiekin betetzen da gauez, eta banderatzoeekin egunez. Eta modan daude 'farm' estilokoak, Estatu Batuetako baserri estiloa imitatuz.

Soinekoa hondatzea

Egun ez da nahikoa eztei-banketea. Eztei-aurrekoa nagusitzen da, jai-giroa berotzeko; eta eztei-ostekoa. Eta gauza bera gertatzen da bikotearen argazkiekin. Azken tendentzia 'trash the dress' da, hau da, ezkontza eta gero soinekoa hondatzea, mendian, itsasoan sartzen edo hondarrean iraulka egiten den argazki saio batean.



Argazkia: Josu Torrealday

Belaustegi Baserria

JATETXEA
www.belaustegi.com

San Migel gaina z/g
943 743 102
ELGOIBAR

Zure ezkontza zure neurrira!

MARRODAN
BITXITEGIA
ERLOJUDENDA



T. Etxebarria, 24
 Tel. 943 20 73 04

Twins



Bidebarrieta, 8 • tel. 943 05 60 82

Zuloagatarren, 7
 943 53 93 34

MARAIS
 KONPLEMENTOAK



BODARIK
ez
 dugu ospatzen

BAINA GUZTIEK ESATEN DIGUTE
 EGIN BEHARKO GENUKEELA
www.antsotegi.com/noboda

ANTSOTEGI
 HOTELA | JATETXE

ZURE EZKONTZA XARMANGARRIENA ERDI AROKO
 BURDINOLAN ERAIKITAKO LANDA-HOTEL ESCLUSIBOAN
 Antsotegi - Altzaa Auzoa, 15 Etxebarria / Markina-Xemein
 946 169 100 / antsotegi@antsotegi.com

EZKONTZA
 tartak eta
 despedidak
 egiteko
 SASOIZ ENKARGATU
ANTXON
 DEGUSTAZIOA

T. ETXEBARRIA, 13
 943 20 63 22




Argazkia: Josu Torrealday

Ezkundu aurreko agurra

Ezkundu aurreko agurra ezkondu aurreko egunetan emaztegaiarekin edo senargaiarekin egiten den festa da, inoiz ez bikotea elkarrekin. Afariak edo bazkariak ohikoa izaten jarraitzen du, baina askotan hori ez da garrantzitsuenena. Festa bitartean ekintza asko egiten dira. Ohikoa da lagunak festaren protagonista mozorrotzea tabernaz taberna ibiltzeko. Beste parte-hartzaileek ere ezaugarri amankomun bat eramaten dute: kamiseta berezia, kapela, pankartak... Batzuetan, ez beti, espektakulu erotikoak ikustera joaten dira, eta omenduari txantxak egiten zaizkio. Batzuk beste herri edo hiri batera joaten dira festa bertan antolatzeko. Abentura-parkeetara joatea ere modan jarri da, eta kirol arriskutsuak praktikatzeari ere bai.

Ospakizun hauen lehenengo erreferentziak K.a. V. mendekoak dira. Espartako soldaduek ezkontza aurretik senargaiaren fideltasuna proban jartzen zuten; horretarako emakume bati ordaintzen zioten gazteari ikuskizun batean probokatzeko.

YOKASTA Ibarakurutzte, 7
 Tel. 603 344 258

Yokasta Nails Spa **manikura-aretoa**

MANIKURA
 5 €tik hasita

PEDIKURA
 10 €tik hasita

zure azazkalak

zure espresibidea



Ezkondu aurreko agur bat antolatzea pentsatzen baduzue, zure lagun mina harritzeko aukera ezinhobea eskaintzen duten enpresak daude. Esate baterako, Kantauri itsasotik azken belaunaldiko sekulako kataran batean nabigatzeko aukera izan dezakezu, ingurune natural eta aire zabalean ospatzeko gehigarriarekin. Kanpoko jana eta edaria eramateko aukera izango duzue.



Argazkia: Josu Torrealday



Argazkia: Josu Torrealday

Ezkontza edo izatezko bikotea: gauza bera al da?

Ez. Legearen ikuspegitik ez dira gauza bera bikote ezkondua (Estatu mailako araudi batek arautzen du, Kode Zibileko 44 artikulua) eta izatezko bikotea (erkidego-etako legeek arautzen dute), eta ez dituzte eskubide berak. Bien arteko aldeak, dena den, lekuaren arabera dira. Autonomia erkidego bakoitzak bere araudia duenez

Gerritek
INFORMATIKA

info@gerritek.net www.gerritek.net
Txantxa-Zelai, 4-6. Tel. 943 03 38 92

Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta



Neurrira egindako software-aren garapena



NOMA
eibar

943 573 196
Ego Gain, 4
nomaeibar@gmail.com



Arrate Gaina, 4 • 279 Postakutxa
20600 EIBAR • Tel. 943 121 262

**EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK**

www.kantabrijatetxea.com
kantabria@kantabrijatetxea.com

RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA JATETXEA

RPS 246/14

kerala

www.estetikakerala.es
www.cosmeticadelbienestar.es

JORGE DE LA GARZA
MAKE UP

Urkizu, 11 solairuartera 943 53 05 25

Makillajea Etxean Bertan

Estetika Tratamenduak, Manikura, Depilazioak, Emaztegiandako BONO BEREZIA...



izateko elkartzeen inguruan, lurralde batzuetan alde txikiak daude bien artean, eta beste batzuetan handi samarrak. Ez ezkontzeak, hortaz, are eta desabantaila handiagoak ekartzen ditu. Izatezko elkartzeek (erregistratuta egon edo ez) murriztuta izaten dituzte eskubide batzuk, traba handiagoak eduki ohi dituzte eskubide horiek gauzatzeko eta, batzuetan, segurtasun juridiko eskasagoa.

Legezko ondorioei dagokienez, alargun-saria da oztoporik handienetakoa, neke-





Argazkia: Josu Torrealday



Argazkia: Josu Torrealday

zago lortzen baitute urteetan ezkondu gabe elkarrekin bizi izan direnek. Eskubide hori izateko, ia nahitaezkoa da erregistroan izena emanda egotea, diru-sarrera txikiak izatea eta elkarrekin urte jakin batzuk bizi izatea, beste zenbait baldintzaren artean (aldatu egiten dira er-kidego batetik bestera). Beste desabantaila bat herentziekin gertatzen da, baina hori testamentuaren bidez konpontzen da.



— Joseba —

Azkoitia
 Fbook/josebajatezsea
 josebajatezsea@hotmail.com
 943853412



Jon Osa igerilariak Euskal Herriko txapela jantzi zuen junior eta absolutu mailatan

Iruñean jokaturako neguko Euskal Herriko absolutu eta junior mailetakoko txapelketetan, Eibar Igerixaneko bost ordezkari izan ziren eta Jon Osak lan bikaina egin zuen, lortutako dominek erakusten duten bezala. Bizkar erako 100 metroko proban urrezkoa lortu zuen bi mailatan eta, horrez gain, 100 libretan brontzekoa irabazi zuen hor ere maila bietan eta, azkenik, 200 bizkarrean zilarra bereganatu zuen juniorretan. Maite Barruetabeña eta Elene Oiarzabal laugarrenak izan ziren 200 libretan eta 50 bizkarrean, hurrenez hurren, eta Nekane Tejedor bosgarren 50 bu-

lar-igeriketan. Ruben Torresek debuta egin zuen maila horretako txapelketa batean.

Aurreko asteburuan, bestalde, alebinen ligako bosgarren jardunaldia eta benjaminen hirugarrena jokatu ziren. Ipuruan jokaturako alebinenean, Eibar Igerixaneko Igor Ruizek (2005ean jaioa) eta Iker Calvo (2006) lehenengo aldiz parte hartzen zuten 1.500 metro libreko probak irabai zituzten. Calvok 200 metro bularrean ere irabazi zuen, Josu Talanen aurretik. 4x100 estiloetako erreleboetan ere nagusi izan ziren eibartarrak. Mutiletan emaitza onak baziren, neskak



ez ziren atzean geratu eta Lucia Gabilondok 100 metro librean irabazi zuen (marka eginez, gainera) eta Maddi Maguregi bigarren izan zen bai proba horretan eta baita 200 bizkarrean ere. Oñatin jokaturako

benjaminen jardunaldian, bestalde, Eibar Igerixaneko 12 igerilarik hartu zuten parte eta Maialen Zenarruzabeitiak 50 metroko bularreko proba irabazi zuen, Nora Ortueta eta Ane Urkolaren aurretik.

Kalamuakoak euskal eta estatuko jiu-jitsu buru-buruan

Hori erakutsi zuen oraingoan ere Mardilgo Parlara joandako eibartarren ordezkariak. Euskadiko selekzioarekin jo-

an ziren hamabost kirolaritik zortzi Kalamuakoak ziren eta, zapatuan ne-waza lurreko borrokan lortutako bederatziko

netik, bost Eibarkoek lortu zituzten: urrezkoa Javi Lassa, Jonatan Terron eta Nekane Muguruzak, eta brontzekoa Jonatan Garcia eta Julen Ramonek. Domekan borroka modalitateko lehiak izan ziren eta hor ere, eskuratutako hiru dominetatik, bi eibartarren esku geratu ziren (Nekane Muguruza eta Iker Martinez, brontzeko banarekin). Kalamuako ordezkariak Julio Gallego eta Manu Agirre izan zituzten lagun eta zuzentzaile: "Jiu-jitsu modalitatean ondo ezagutzen gaituzte estatuan. Eta Muguruzak lortutako urrezkoa merito handikoa da, ahalegin berezia egin behar izan duelako beste maila batean borrokatzean".



Iker Arizmendiarieta markinarrak irabazi zuen San Pedroko tiraldian

Hiru-txirloko Gipuzkoako txapelketa abiatu zen aurreko zapatuan Elgoibarko San Pedro bolatokian 72 tiralarirekin. Iker Ariznabarreta markinarra izan zen irabazle Elgeta ordezkatzuz, zazpi txirlorekin, eta atzetik sailkatu ziren Angel Ibarluzea (Elgoibarko San Miguel), Jose Muñoz (Azkoitiko Floreaga) eta Asola Berriko Ga-

nix Rodriguez eibartarra, seirekin. Azken honek eta Alex Camposek osatutako bikotea da lider binakako sailkapenean; eta taldekakoan Asola Berri A nagusitzen da San Miguel Aren aurretik, lau puntuko aldeaz. Bihar bertan jokaturako txapelketako bigarren jaurtialdia Bergarako San Joxepeko bolatokian.



Negutraila domekan Uxue Frailerekin

Donostiako mendi-korrikalari handiak iaz bigarren postua lortu zuen Mont Blanc-eko Ultratrail-ean, urtebete baino gehiago lehiatu gabe eta ia arineketa egin gabe egon eta gero, 2016ko amaieran izandako belauneko lesio larri baten ondorioz. 2015ean ere bigarren geratu zen; 2016an hirugarren, eta 2014an, berriz, bosgarren. Trail munduan, ultra distantzian, Chamonixen antolatzen den lasterketa entzutetsua da (170 kilometro ditu eta 10.000 metroko desnibela ibilbidetan lehiatzeko). 40 urteak atzean lagatako kirolari beterranoa gorputz-hezkuntzako irakaslea da Uxue Fraile eta domekan aukera paregabea izango dugu bera gertuagotik ezaizteko, Klub Deportiboko mendi batzordekoek prestatutako Mendi Jardunaldien barruko azken ekitaldian. NeguTrail topaketa goizeko 09:00etan hasiko da Deporren bertan eta, 14:00etan egingo den bazkariaren ondoren, solasaldirako tartea izango da. Ekitaldian parte hartzeko izen-ematea zabalik dago kalamuakorrikalaritaldea@gmail.com helbidean



la 350 txirrindulari emakumezkoen Eibar Hiria Sari Nagusian

199 parte-hartzaile izan zituen proba nagusiak eta 142 aurretik jokatu zen kadeteen mailakoak, modu horretan aurreikuspen guztiak gaudituta. Eibarko Txirrindularitza Elkarteak antolatutako proba, aurtengo egutegiko bigarrena, Espainiako Koparako lehenengo baliagarria zen. Elite mailako 75 txirrindulari, 23 urtetik azpiko 68 eta junior mailako 56 bildu zituen domekako bigarren lasterketak eta Movistarreko txirrindulariak ondo kontrolatu zuten, podiuma taldekideen artean osatzeraino. Lorena Llamasek irabazi zuen, Paula Andrea Patiño minutu erdira helmugaratu zen eta Lourdes Oiardibe minutu batera ia. Llamas irabazleak mendiko sailkapena ere bereganatu zuen eta Oiarbide hirugarrenak tarteko helmugetakoa. Kadete mailako lasterketan Lucia Garcia izan zen garailea esprintean, Aina-ra Albert eta Isabella Escaleraren aurretik. Proba horretan 101 txirrindulari heldu ziren helmugara, irten zuten 142tik.

Garaipen bikainak lortu dituzte waterpolo lehen bi taldeek

Orbeako igerilekuan azken asteburuan jokaturako partiduetan, Urbateko senior mailako talde biek meritu handiko garaipenak lortu zituzten: gizonezkoen taldeak Claret Askartza gaudituz lortu zuen 9-5, 6-0 irabazten joan eta gero. Bizkaitarrek Euskal Ligako gorenean jarraitzen dute, baina denboraldiko lehen partidua galdu zuten Orbean eta, aldi berean, eibartarrek Orbean galdu bari jarraitzen dute eta sendo eusten diote ligako bigarren postuari. Gizonezkoen taldearen parean ditugu Urbateko emakumeena eta, Leioari 11-8 irabazi eta gero, Euskal Ligako bigarrenak dira sailkapenean. Denboraldi bikaina jarraitzen dute egiten bi taldeek Euskal Herriko Ligan.

Deporreko xakeko lehen taldeak mailari eustea lortu du

Gipuzkoako taldekako txapelketaren azken jardunaldia jokatu zen aurreko zapatuan eta Eibarko Klub Deportiboko lehen taldeak hain beharrezkoa zuen garaipena eskuratu zuen Donostiako Añorga Gros azken sailkatuaren aurrean. Jon Arana, Jon Esturo, Xabier Beorlegi eta Diego Olmok lortutako 4-0ko horrekin Eibar A taldeak zazpigarren amaitu du denboraldia eta beste urtebete mailari eustea lortu du. Aste Santuan jokatuko den Donostiako Nazioarteko Txapelketa izango dute hurrengo erronka herriko xakelariek.



35 lagunek hartu zuten parte ibilaldian. Irudian, Arrieta tontorrean. Periko Iriondo



Artzaintza Naturbidearen bigarren etapa egingo dute apirilaren 6an

Aurreko zapatuan Subillanatik Okinara egindako zeharkaldia-ekin hasi zuten Klub Deportiboko mendi batzordekoek Artzaintza Naturbidea eta apirilaren lehenengo asteburuan egingo dute bigarrena, Okinatik Urturira eramango diena. Aurrekoan Zalduan eta Vitoria izeneko mendateak pasatu zituzten, Pagogan eta San Kristobal tontorrek igo eta, jaitzialdi azkarrean, Okinan amaitzeko. "Kilometro luze izan bazen ere, paisaia eta bidetaren erosotasuna lagun, gustora egin genuen, pagadi, harizti eta ametzen artean". Apirilaren 6ko bigarren etaparen parte hartu nahi dutenek Deporretik pasatu daitezke martitzen eta eguenean (19:30-20:30).

Eibar FT-k domekan eta egueaztenean izango ditu denboraldia lasai amaitzeko aukerak

Hamar jardunaldi geratzen dira 1. Mailako liga amaitzeko eta hamar puntuko aldea du Mendilibarren taldeak jaitsiera postuetan daudenen lehenengoarekiko. Hala ere, etzi Valentzian eta datorren asteko egueaztenean Ipuruan Rayo Vallecano hartuta asko dute jokoan eibartarrek, hurrengo neurketak zailagoak izango direlako (aurrez ikusita behintzat). Levante etzi eguerdiko aurkaria eibartarrendandik lau puntura dago sailkapenean eta, Eibarrek egindakoaren kontra, orain arte puntu gehiago atera ditu etxetik kanpo bere zelaian baino. Gainera, orain arte 1. Mailan jokaturako partiduetan Eibarrek ez du inoiz irabazi Valentzia Hiria estadioan.

Apirilaren 3an, bestalde, Eibarrek sailkapenean 12 puntura duen Rayo Vallecano jasoko du Ipuruan, arratsaldeko 20:30ean hasiko den



norgehiagokan. Hortik aurrerako egutegia zailagoa izango da Eibar Ft-rentzat: hilaren 6an, Bernabeun jokatu du 16:00etan; 14an Anoretan izango da 16:15ean; eta 20an Atletico Madril etorriko da Ipuruara 16:15ean.

Somos-ek penaltiz irabazi zuen denbora amaituta

Sailkapenean atzetik zuen Corrales Kantabriako taldeari larri baina irabazita, Eibar Eskubaloiko lehen taldeak hurrengo denboraldian ere ligako 1. Maila Nazionalen jarraitzeko urrats handia eman zuen zapatuan Ipuru kirolegian. Fernando Fernandezek mutilek 33-32 nagusitu zitzaion kantabriarrei, partiduko denbora amaituta penaltia gauzatuz lortutako golari esker. Bost jardunaldi geratzen dira liga amaitzeko eta, matematikoki oraindik jaitsierarik ez bada libratu ere, egoera lasaian daude orain eibartarrak. Emakumezkoen lehen taldeak Ordizia Irurenari irabazi zion 25-22 eta Haritza gizonetzkoen bigarren taldeak 24-26 galdu zuen Ormaiztegiaren.

Ipuruako gimnasten lau talde podiumean

Donosti Torneoan gimnasta federatu absolutuak, taldeka zein maila indibidualean, eta amateur mailako jubenil taldeak hartu uten parte. Senior mailako Ipuruako boskoteak zilarrezkoa irabazi zuen bi aro eta hiru pare mazarekin eta junior mailakoak brontzea lortu zuen bi aro eta hiru zintekin. Banakakoan, gainera, Nahia Arguiz seniorra txapeldun izan zen mazekin. Jubenil A amateur taldea, bestalde, bigarren sailkatu zen sei pare mazakin egindako ariketari esker. Hurrengo egunean Zaragozako Utebon jokaturako Octavus Torneoan, Ipuruako jubenil oinarri taldeak zilarra irabazi zuen eta, modu horretan, orain arte jokaturako toneo guztietan izan dira podiumean.



Ipuruako senior eta junior taldeak.

Isusi garaile Añezkarko txakur-krosean

Andoni Isusik bikain amaitu du denboraldia eta Balto txakurkrosean nagusitu egin zen Nafarroako Añezkarko jokaturako mushing eta txakurkros probaren bosgarren edizioan. Zapatuan eta domekan, bietan nagusitu zen ermuarra, eta Takuai Mushing Team taldekideak ere aurreko postuetan sailkatu ziren: Fabian Castro bosgarren izan zen Lunarekin zapatuan eta Andoni Mayo zazpigarren egun bietan Dexterrekin. Horrez gain, patin-lasterketan Isusik Tyson txakurkrosean hartu zuen parte eta Castrok Titanekin bikejoring-en (bizikletarekin). Eta Sonia Dominguezen debuta ere izan zen, maila ona erakutsi zuen Zeus txakurkrosean.

ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

1. Maila

Levante - Eibar (domeka, 12:00)

Eibar - Rayo Vallecano (eguztina, 20:30)

Emakumezkoen 2. Maila

Eibar - Aurrera Vitoria (domeka, 12:30)

2. B Maila

Vitoria - Oviedo B (domeka, 17:00)

Emakumeen Ohorezko Erregional Maila

Urola - Eibar (domeka, 12:00)

Ohorezko Erregional Maila

Zarautz - Eibar (zapatua, 16:00)

1. Erregionala

Urki - Oiartzun (domeka, 17:30)

Eibartarrak - Bergara (zapatua, 18:00)

JUBENILAK

Ohorezko Maila Nazionala

Eibar - Oberena (zapatua, 16:00)

Euskal Liga

Eibar B - Antiguoko C (domeka, 15:30)

KADETEAK

Euskal Liga

Getxo - Eibar (domeka, 11:45)

FOBALL-ZALETUA

Slow XOK - Los Paisanos (zapatua, 09:00)

Durango - Feredu (zapatua, 10:30)

Azkena Adahi - La Jara (zapatua, 12:00)

Ipur Sagardotegia - Chic (domeka, 09:00)

Garaje Garcia - Larragest (domeka, 09:00)

Bar Areto - Bar Txoko (domeka, 10:30)

ESKUBALOAIA

1. Nazional Maila

San Antonio - Somos (zapatua, 18:30)

Emakumeen Gipuzkoako Txapelketa

Eibar Eskubal. - Legazpi (zapatua, 18:15)

Gipuzkoako 1. Maila

Bidasoa Irun - Haritza (zapatua, 19:00)

ERRUGBIA

Emakumezkoen Ohorezko B Maila

Les Abelles - Avia Eibar (domeka, 12:00)

SASKIBALOAIA

3. Maila

Larramendi - Avia Eibar (zapatua, 18:00)

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

Larraina - Urbat IKE (zapatua, 14:00)

Emakumeen Euskal Herriko 1. Maila

CW 9802 - Urbat IKE (zapatua, 18:00)

KIROL-AGENDA OSOA
etakitto.eus HELBIDEAN

*asteburuko emaitza guztiak
astelehen goizerako*

Martxoaren 22an hasi zen XXVI. Nagusien Hamabostaldiaren barruan ekitaldi ugari antolatu dira Eibarren. ADINDUko Eva Perez de Albenizek eta Adriana Gandiagak "Aisialdia nola kudeatu" hitzaldia eman zuten atzo. Evak ondo ezagutzen du Eibarko nagusien errealitatea eta Eibarren eurentzako dauden zerbitzuak. Izan ere, Ikasten elkartearen Esperientzia Eskolako koordinazioa eramateaz gain, San Andres egoitzan jarduten du psikologa bezala. Eibarren dauden 4 jubiletxeak ere ezagutzen ditu eta orain dela gutxi Adindu bere enpresak "mendekotasuna duten adineko pertsona kalteberak eta haien zaintzaileak" plana egin du Udalarekin.



EVA PEREZ DE ALBENIZ: "Nagusia izatea ez da txarra"

- Zer da nagusia izatea edo noiz hasten gara nagusiak izaten?

Esperientzia Eskolara etortzen diren asko jubilatutako berriak dira, eta badaude 60 urte baino gutxiago dauzkatenak ere. Aurkezpenean nagusiak direla esaten dudanean batzuei muturra okertu egiten zaie. Zaharra izateaz hitz egiten denean, muga normalean jubilatzen zarenean jartzen da. Hala ere, 60 urtetik 90era oso egoera desberdinak daude, hainbat azpietapa bizitzen dira. Pertsona nagusi "gazteekin" eta beste muturrean daudenekin egiten dut lan nik. Hala ere, adinak markatzen duen marraz gain, hor beste marra bat ere badago, autonomoak eta mendekotasuna dutenak banatzen dituena, hain zuzen ere. Eta erdian daude "hauskorrak" deitu daitezkeenak, hau da, autonomoak izanik dependentzia egoeran sartzeko arriskuan daudenak. Eta hau ez dator adinarekin bat: 65 urterekin ere mendekotasuna daukazu pertsona izan zaitezke.

- Zergatik ez zaigu gustatzen nagusiak garela onartzea?

Buruan daukagu zahartzea txarra dela, eta ez da horrela. Bizitzako beste etapa bat da, beste ezaugarri batzuk dituena. Egia da galera asko dituen etapa bat dela, eta egokitzen joan behar duzula: galera fisikoa, jendearen galera... baina ez da dena txarra, beste gauza batzuk ere badira. Lanean zaudenean errobera batean sartuta zaude, eta etapa berri honetan beste gauza batzuk egiteko eta jende berria ezagutzeko aukera dago. Ematen du nagusi

izanez gero ezin garela ondo sentitu edo ondo egon, eta ideia hori baztertu egin behar dugu. Nik beti esaten diet harrotasunez esan behar dela "nagusia naiz", eta momentua disfrutatu egin behar dela.

- Zertaz hitz egin duzue hitzaldian?

Alde batetik denborarekin dugun harremana bizitzan zehar oso desberdina da. Denboraren pertzepzioa desberdina da 10 urte dituzunean edo nagusia zarenean. Lanean zaudenean dena lanaren inguruan antolatzen duzu. Jubilatzen zarenean, lana desagertzen denean, zuk berrantolatu behar duzu denbora: ze ordutan esnatuko naiz? noiz bazkalduko dut? Badira egunean derrigorrez egin behar diren gauzak, baina badago hor gelditzen den denbora libre bat, aisialdia. Batzuentzako denbora libre horrek denbora galtzea esan nahi du, baina beste batzuk, jubilatutako gazteek batez ere, oso argi daukate aisialdia zer den.

- Nola ulertu behar dugu aisialdia edo denbora libre, beraz?

Denbora libre gure bizitzarako ona den zerbait bezala ulertu behar dugu, onuragarria. Gozatzeaz gain, aldi berean osasungarria izan daiteke. Izan daiteke zerbait fisikoa, lan mentala eskatzen duena, jendearekin egotea eta baita parte-hartze sozia-

larekin zerikusia daukana ere (jubilatuen kontzentrazioak, zaharren egoitzara abes-tera joan...). Adibide moduan koroa erabili daiteke: zerbait mentala egiten da, abestiak buruz ikasi behar direlako. Ekimen soziala da, jendearekin zaudelako. Eta, gainera, zaharren egoitzara abes-tera badoaz gizartean ekarpen bat egiten ari dira. Disfrutatzearena eta aisialdiarena aurreikusitako eta planifikatu beharrekoa da. Ahalegin bat egin behar dugu plangintzatxo bat egiteko. Denbora libre ez da sobran dagoen denbora, gure ongizaterako parte oso garrantzitsua da eta horrela ulertu behar dugu. Batzuetan, etxekoren bat zaindu behar dutelako edo, denbora libre gutxi izaten dute, baina inportantea da tartetxo bat hartzea lagunekin kafetxo bat hartzeko, gimnasia joateko...

- Zer gertatzen da mendekotasun egoeran daudenekin?

Aisialdiari buruz berba egiten dugunean ematen du bakarrik pertsona autonomoak buruz ari garela, baina hori ez da horrela. Disfrutatze gaitasuna ez da inoiz galtzen. Eibarren eskaintza handia dago, mila gauza daude, baina mendekotasun egoeran daudenak askoz ere zailago daukate parte hartzeko. Horregatik da inportantea norberak plangintza hori egitea eta moldatzen edo egoera berrira egokitzen joatea. Eta erakundeen eta nagusiekin gabil-tzan jendearen aldetik parte-hartze hori erraztu behar diegu. Bagaude horretan, baina oraindik bidea daukagu egiteko.

"Denbora libre gure ongizaterako parte oso garrantzitsua da"

Urdin elektrikoa, errege urdina, itsas urdina, heraldikoa, ziana, turkesa, zero-kolorea, akuamarina... urdinak tonu ezberdinak ditu, eta ñabardura guztietako urdinak bilduko dira Eibarren domekan, hilaren 31an, Autismoaren Espektroko Nahasmenaren (AEN) barruan existitzen den dibertsitatea irudikatzen. 'Urdin bat, urdin anitz' goiburuarekin desberdintasunaren apologia egingo dute, AEN-ren barruan existitzen den dibertsitatearen isla. "Denok gara ezberdinak eta gure aniztasunean bat egiten dugu".

Tonu guztietako urdinak autismoa dutenen alde

Gautenak, autismoa duten senideen Gipuzkoako elkarteak, Urdinduz eguna antolatu du domekan Eibarren, apirilaren 2an ospatuko den Autismoaren Kontzientziatorako Nazioarteko Egunaren harira. Autismoaren aldeko ibilaldi solidarioa egingo da 11:30etik aurrera Untzaga plazatik, autismoaren inguruan gizartea sensibilizatu eta kontzientzia hartzeko. Gero, herriko kaleak zeharkatu ondoren, ibilaldia Untzagara iritsiko da berriz 14:00etan.

Ekimen honetan parte hartuko dutenek urdinez jantziko dute herria, eta amaieran sagardoa, pintxoak, eskulanak, photocall eta puzgarriak egongo dira Untzagan. 'Marea urdina' abestiak girotuko du eguna eta, horrez gain, Auritz musika taldeak ikuskizuna eskainiko du Oishi tabernan 13:00etan. Taldeak 'Auritz, laino eder hori' proiektua aurkeztuko du, AEN duen ume baten istorioa kontatzen duen lana.

Porrotx eta Marimotots pailazoek, Sara Cozar aktoreak, Zalao Urain Kokein musika taldeko abeslariak eta Markel Susaeta Athletic Clubeko jokalaria babesa eskaini diote Urdinduz egitasmoari, eta jendea domekako ibilaldian parte hartzera gonbi-



Jende ugari bildu izan da Urdinduz Egunaren aurreko edizioetan.

datu dute sare sozialetan partekatutako mezuekin.

Gautenak 2014an jarri zuen martxan Urdinduz eguna eta, harrezkero, Gipuzkoako hainbat herrik jaso dute urtero autismoaren aldeko ibilaldia. "AEN duten haur eta helduen bizi kalitatea hobetzen laguntzea da helburua", egitasmoaren arduradunen berbetan, "bizitza betea eta zoriontsua izan dezaten". Horretarako berebizikoa da gizartean AEN-ren inguruko kontzientzia piztea, sensibilizazioa handitzea eta desoreka hau duten pertsonen egunerokotasunean dituzten mugak zeintzuk diren jakinaraztea.

Hamar eraikin urdin

Urdinduz eguna antolatzeaz gain, Gautenak beste erronka bat dauka apirilaren 2rako: Gipuzkoako hamar eraikin urdin kolorez argiztatzea. 'Light It Up Blue' (LIUB) izena du egitasmo honek eta Autism Speaks erakundeak bultzatzen du mundu mailan, AEN duten pertsonen eta beraien familiei elkartasuna adierazteko.

Hiru gako ditu egitasmo honek. Batetik, gizataldea ikusgai egiten laguntzen du eta autismoa duten pertsonen ezagutza eta tolerantzia bultzatzen du. Bigarrenik, AEN duten pertsonen talentua eta gaitasunak ospatzen ditu. Eta hirugarrenik, autismoa duten pertsonen beharrak aditzera ematen ditu.

Gautena Eibarren

Euren seme-alabek laguntza beharrak ziztuztela ikusten zuten gurasoek sortu zuten Gautena 1978an. Gipuzkoa osoan eskaintzen ditu zerbitzuak eta Eibarren zentro bat dago Argatxa kalean (16. zenbakian). Diagnostiko eta tratamendu zerbitzua, hezkuntza zerbitzua, eguneko arreta zerbitzua, etxebizitza zerbitzua, aisia eta denbora libre, familientzako laguntza zerbitzua eta elkarte ekintzak eskaintzen ditu.

Gautenarekin kontaktuan jarri nahi izanez gero, 943 70 21 16 edo 943 21 53 44 telefonoetara deitu, info@gautena.org helbidera idatzi edo www.gautena.org webgunera jo daiteke.



Eibarko kaleak zeharkatuko ditu ibilaldi solidarioak.



JOSE VILA. Udaberria.

Abestien koreografiak dantzatzean datza zumba. Normalean 50 minutu edo ordubeteko klaseak egiten dira eta monitore batek zehazten ditu dantzatu beharreko pausoak. Erresistentzia eta indarra lantzeaz gain, aldakak mugitu eta ondo pasatzeko ariketa da, baina alde solidarioa ere edukiko du apirilaren 6an Astelena frontoian. Izan ere, IV. Zumba Maratoia egingo da AFESD elkartearen alde.



Erritmo solidarioak Astelenan

Nerea Blasco zumba irakasle eibartarra da Zumba Solidarioaren bul-tzatzailea. *"Madrilen zumbako ZIN (Zumba Instructor Network) titulua ateranuen eta zumba ekitaldiak antolatzeko baimena lortu nuen horrekin batera. Masterclass-ak (klase bereziak) edo ekitaldi handiak antolatzeko aukera daukat, eta nik bide horretatik jo dut"*. Madrildik bueltan Nerea zumba klaseak ematen hasi zen eta, bere bikotearekin komentatu ondoren, zumba ekitaldi solidario bat antolatzea ideia ona izan ahal zela pentsatu zuen. *"Felipe Zamakola Eibarko kiroldegiko zuzendariarekin harremanetan jarri nintzen eta I. Zumba Maratoia antolatu genuen 2015ean"*.

Blascoren egitasmoak erantzun ona jasozuen eta laugarren edizioa egingo da

aurten. Zumba Maratoian jasotako dirua AFESD elkartekoei emango diote, diagnostiko gabeko gaixotasunen bat daukaten umeen tratamenduak ordaintzen laguntzeko. *"Politikoa da jendearen erantzuna ikustea. Egitasmo solidarioa denez, jendea laguntzeko prest dago"*.

Dantza eta zozketak

IV. Zumba Maratoia apirilaren 6an egingo da, zapatuan, 11:00etatik 13:00etara Astelena frontoian, eta Nerea Blascok gain beste bost zumba monitore egongo dira: Esther Gonzalez, Esti Garcia, Ainhoa Amas, Iratxe Nuñez eta Iñaki Ruiz. *"Abesti ezagunak dantzatuko ditugu, guztiok ezagutzen ditugunak. Beraz, pauso errazak egingo ditugu"*. Momenturen batean erritmo biziagoak dantzatuko dituztela dio Blascok,

"ez aspertzeko", baina inoiz zumba egin ez duena jendea joateko moduko ekintza izango da Astelenakoa. *"Parte-hartzaile guztiak elkarrekin egingo dute dantza, baina momenturen batean norbaitek atsedena hartu nahi badu, ez dago arazorik"*.

DJ batek musika jarriko du eta ekitaldi amaieran hainbat zozketa egingo dira. Herriko hainbat erakunde eta enpresen babesas jaso du Zumba Maratoiak, eta eurek emandako produktuak zozketatuko dira. *"Gainera, jatekoa eta edatekoa ere egongo da"*.

Sarrerak salgai

Iaz 170 lagun inguruk hartu zuen parte Zumba Maratoian, *"eta aurten antzeko jende kopuruak parte hartzea espero dugu"*. 250 lagunentzako tokia egongo da Astelenako dantzatokian eta dagoeneko sarrerak salgai daude 10 eurotan. Sarrerak Estetika Ibonen (Romualdo Galdos kalea, 10 B) erosi daitezke edo, bestela, apirilaren 6an Astelena frontoiko leihatilan. *"Nirekin dantza egitera etorriko diren beste irakasleek ere saldu dituzte hainbat sarrera, baina egia da baita ere jendeak azken momentura arte itxaroten duela sarrerak erosteko"*.

Norbaitek ekitaldi solidario honekin bat egin nahi bai, baina dantza egin nahi ez bada, bere laguntza eskaini dezake. *"Horrelako kasuetan, gehienetan, jendeak sarrera erosten du eta, gero, ekimena ikusten du edo ez, nahi duen moduan. Bestela, zuzenean AFESD elkartearekin kontaktuan jartzea gomendatzen dut diruz laguntzeko"*. Dantzan edo geldirik, guztiotzako egongo da lagundu ahal izateko aukera.





IRATI ELORRIETA
(idazlea)

“Errealitatetik abiatzen naiz eta hortik egoerak sortzen ditut”

Irati Elorrieta idazleak 20 urte daramatza Berlinen bizitzen eta Alemaniako hiriburuko kaleetara garamatza ‘Neguko argiak’ liburuan. Liburuak kritika bikainak jaso ditu eta Elorrieta ‘Harixa Emoten’-en saioan egongo da apirilaren 2an, 19:00etan, Portaleko kulturako 3. batzartokian eta liburuaren irakurleekin solasaldia egingo du.

- ‘Neguko argiak’ liburuaren inguruan solasaldia izango duzu Portalean. Horrelako saioak egitea gustatzen zaizkizu?

Gogotsu noa Eibarrera, ‘Neguko argiak’ liburuaren irakurleekin egiten dudana lehen topaketa izango dela. ‘Burbuilak’ liburuaren idatzi nuenean horrelako solasaldi bat egin nuen, baina orain dela hamar urte.

- Idazterako orduan irakurlea kontuan hartzen duzu?

Barreketatik ateratzen zaidana idazten dut, ez dut pentsatzen zelan irakurriko den. Hala ere, liburuaren kaleratzen denean bai interesatzen zait jendeak zelan hartzen duen ikustea.

- Joxerra Garzia idazle eta kazetariak “ugaritasuna eta mes-tizajea” berbak erabili zituen zure lana deskribatzeko. Berlin hiririari ere ondo egokitzen zaizkio berba horiek. Zure liburuaren Berlinen islada da?

Berlinek liburuaren zati handi bat hartzen du. Orainaldian kontatzen den kontakizun guztia Berlinen kokatzen da, hiriko auzo batean zehazki. Auzo horretan kalez kale mugitzen dira pertsonaia, errealitateari oso lotutako geografia deskribatzen dut, baina Berlin ez da dena. Añes, pertsonaia nagusi bat, Uribe Kostatik dator eta inguru hori ere nahiko presente dago iraganeko kontakizunean. Bestetik, Parisek ere protagonismoa dauka, gaur egungoak eta XIX. mende amaierakoak, Parisko Komunako sasoikoak.

- Berlinen bizi zaren neurrian, errealitatea eta fikzioa nahasten dira liburuan?

Errealitatearen eta fikzioaren nahasketa erabatekoa da. Idazten nengoen bitartean, momentu batzuetan, ez nekien zer zen asmatua eta zer benetakoa. Baina ez dut ezagutzen lan egiteko beste modu bat. Errealitatetik abiatzen naiz eta hortik aurrera egoerak sortzen ditut.

- Azken liburuaren ‘Burbuilak’, 2008. urtean idatzi zenuen. Nolako da zure sortze prozesua?

Ikusten denez, astiro idazten dut (barreak). ‘Burbuilak’ amaitu orduko ‘Neguko argiak’ hasita neukan eta hasierako gauza batzuk amaierara arte mantendu dira. Bizitzak ez dit denborarik uzten idazteko, behar dudana beste behintzat, eta eleberriri formatuan idazteko denbora asko behar dudala konturatu naiz. Jarraian idatzi behar dut gainera, ezin dut orain ordu batez eta gero beste batez idatzi, galdu egiten naizelako.

- Hainbeste denboraren ondoren, zer sentitzen da liburuaren amaitzean?

Etxea trastez beteta daukagunean eta gauza guztiak ordenatu eta behar den tokian jartzen dituzunean sentitzen duzuna bezalako zerbait sentitu nuen. Apalak libre utzi nituela esango nuke, beste gauza batzuk egiten hasteko. Liburuaren amaitu arte pertsonaia buruan nituen tokia hartzen.

Salgai daude Eibarko Koro Gaztearen kontzertu bereziko sarrerak

10. urteurrena ospatzeko, kontzertu berezia egingo du Eibarko Koro Gazteak apirilaren 12an, 20:30ean, Coliseo antzokian. Diotenez, hilabeteak daramatzate aparteko ikuskizuna prestatzen, “*ilusio handiarekin*” eta euren ezaugarri bihurtu den pasioarekin. Taldeko kideek banaka, binaka edo taldeka hartuko dute parte, “*eta bakoitzaren esentzia ezagutzeko aukera ezinhobea izango da*”. Sarrerak Kutxabank-en daude salgai edo, bestela, Coliseoko leihatilan erosteko aukera ere badago (astelehen eta barixakuetan, 17:30etik 19:30era).



“Euskañola” hitzaldiak jendetza erakarri zuen

Martitzenean ...eta kitto! Euskara Elkartearen egon zen Pello Etxaniz, “Euskañola” izenburuko hitzaldia ematen. Lizarrako Ikastolako irakaslea izateaz gain “Tarteko Hizkuntza” ikerketa-liburuaren egilea ere baden Etxanizek “euskañola” izenarekin ezagutzen dugun hori zer den, bere ezaugarriak eta zer kausa eta ondorio dituen azaldu zituen saioan. Hitzaldira bertaratu zen jendeak interes handiarekin jarraitu zituen esandako guztiak.



“Animalien biltzarra” kontakizuna bihar arratsaldean

Zapatuko Ipuina egitasmoaren barruan “Animalien biltzarra” izenburuko ipuin-kontakizuna eskainiko du bihar arratsaldean, 18:00etan Maider Alcelay Romerok, Umeen Liburutegian: *“Urtero, animaliek biltzarra egi-ten dute. Aintziran bizi diren igelak, ganbarako xaguak, sugandila bihurriak, baserriko oilarra, otso despistatua... eta beste hainbat suaren inguruan elkartzen dira, urte guztian zehar gertatutakoak eta bizi izandako istorioak partekatzeko. Zenbat kontu eta istorio harrigarri!”*.

“Aroa eta mirariak” magia saioa familientzat

Martitzenean 18:00etan familia osoarentzat magia saioa eskainiko du Asier Kidam magoak Umeen Liburutegian, “Haur liburuaren nazioarteko eguna” ospatzeko. Antolatzaileen berbetan, “esperimentu benetan magiko honetan Asier Kidamek bere azken sormen-lanak erakutsiko dizkigu. Umoreak eta soinu-banda zaindu batek inguratuta, publikoak mirari txikiak bizitzeko aukera izango du: botere handiak dituen aro bat, ardi jostalariak... baita magia egiten duen pelutxe bat ere”.



Korrikarako girotzen joateko bertso-bazkaria egin zuten Legarregainen

Asteburuan Legarregain elkartearen egindako bertso bazkariarekin primerako giroan hasi dituzte 21. Korrikarako beroketak. Desiree Magro gai-jartzaile zutela, Jokin Bergara eta Manu Goioanak bazkalostea bertsoekin girotu zuten, Jainagaren trikitilariak lagun zituztela. Ekitaldia Korrika Kulturalaren egitarauaren baitan antolatu zuten. Argazkiak eta bideoa etakitto.eus gure web orrian, mediatekan ikus daitezke.



Eguen Zuriko sariak eta erakusketa

Bihar arratsaldean, 19:00etan banatuko dituzte Eguen Zuri 2019 argazki lehiaketako sariak, Topalekuan. Horrekin batera, epaimahaiak lehiaketara aurkeztu direnen artean aukeratutako 20 argazkirekin erakusketa zabalduko dute. Apirilaren 14ra arte egongo da ikusgai, Kultu tabernetatik sartuta.

Musika Bandaren emanaldia

Domekan 12:30ean Eibarko Musika Bandak kontzertua emango du Coliseoan, Carlos Sanchez-Barbak zuzenduta. “Country and Western” (Harold L. Walters), “Por un puñado de dolares” (E. Morricone), “Western Pictures” (K. Vlæk), “Moment for Morricone” (J. de Meij) eta “Dakota” (J. de Haan) joko dituzte.




Kontari eta Kantari

Apirilaren 6an (zapatua), 12:00etan, “Kontari eta Kantari” egitasmoko ipuin musikatu eskainiko dute, euskeraz, El Corte Ingleseko ekitaldi aretoan. Olga Sanchez musikaterapeutak eta Ane Lopez ipuin kontalariak “Nola dastatu ilargia?” izenburukoa aurkeztuko dute. Saioa 2-6 urteko haurrentzat, gurasoekin batera joateko pentsatuta dago eta sarrera dohainik izango da. Hala ere, aurretik izena eman behar da, liburu sailean (3. solairuan). Plaza mugatuak dira.

Olaberria eta Ezkiora txangoa antolatu dute

Arrate Kultur Elkarteak, Aza Ta Porrúa elkartearekin batera, txangoa antolatu du, Korrika Kulturalaren egitarauaren barruan. Apirilaren 6an, 10:30ean Ego-gainetik abiatuko dira, autobusez. Goizean janari ekologikoen ekoizlea den Olaberriako Etxeberri-goikoa baserrira joango dira eta arratsaldean, beriz, Ezkioko Igartubeiti baserri-museora. Bazkaria norberak eraman beharko du eta buelta 18:30ak aldera izango da. Informazioa eskatzeko eta izena emateko arratekultu@gmail.com helbidera idatzi edo 638284912 telefono zenbakira deitu. Bazkideentzat prezioa 12 eurokoa da eta beste guztientzat 15 eurokoa.




Antzerki Jardunaldiak

MARTINAREN PARKE FANTASTIKOA

Producciones Maestras

musikala

MARTXOAK 30 zapatua 17:00 Coliseoa



5 urtetik aurrerako mota guztietako ikusleentzat pentsatua

dagoen ikuskizunean hainbat gai jorrotzen dira, besteak beste genero rolen banaketa haurtzaroan, norbera eta besteak onartzea, enpatia eta elkartasuna. Muntaiak dinamikoa eta dibertigarria da, hizkera ludiko eta motibatzailearekin. Aktore lan, musika, hitz, irudi eta eszenografia zoragarriak osatzen dute imaginario unibertsal bezain pertsonala den haurtzaroa. Imaginazioak mugarik ez duela erakusten duen lanaren aurrean gaude, gaztetxoentzako oso aproposa.



COMEDIA AQUILANA Nao D'Amores


komedia

APIRILAK 1 astelehena 20:30 Coliseoa

Eszenografia xumea, baina oso eragingarria, izugarri landutako figura estetikoak eta antzinako instrumentuekin zuzenean interpretatutako musika aparta ditu ardatz komedia honek. Lan bikainean bat egiten dute alaitasuna, lotsagabekeria, fantasia, jolas, freskotasuna, bizitasuna eta mugimendu finak. XVI. mendeko Bartolome Torres Naharro antzerkigileak sortutako antzezlanak kritika distiratsuak jaso izan ditu aurkeztu duten eszenategi guztietan.



James Brown ezagunari eskainitako ikuskizuna apirilaren 6an



Brodas Bros kataluniako dantza konpainiaren eskutik James Brown musiko ezagunari omenaldi gisa sortu zen Block Party ikuskizuna hartuko du Coliseo antzokiak apirilaren 6an, 20:30ean (20 euro, 14 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Musika beltzari eskainitako omenaldi-kontzertuan bost dantzari, sei musikari eta abeslari bi igoko dira taula gainera, Cool Herc, Africa Bambata edo Grandmaster Flaix moduko Djek Nueva Yorken antolatutako jaietan sortu zen Hip Hop-aren energia guztia publikoari transmititzeko. Lalo Lopez (Fundación Toni Manero) buru duen Nacion Funk All Stars bandak gidatuko duen eta Brodas Bros-en dantza ikusgarriek girotuko duten jai izango da. Sarrerak alde zuzenetik erosteko aukera izango da Coliseoko txarteldegian (astelehen eta barixakuetan, 17:30etik 19:30era), baita www.kutxabank.es helbidean ere.

Korrika Kulturalak Erdaldun Berrien Kluba ekarriko du

Aurtengo Korrika Kulturalaren barruan, ...eta kitto! Euskara Elkarteak "Erdaldun Berrien Kluba" izeneko ikuskizuna ekarriko du Eibarrera. Datorren apirilaren 3an, eguaztena, izango da Portalean, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Olatz Pagalday eskoriatzarra du protagonistak bakarriketa honek. Irantzu izango da bera, "euskeraz pentsatzen, sentitzen eta, ahal duen guztietan,



euskeraz diharduen neska". Horrek hamaika arazo sortuko dizkio egunerokotasunean eta bizipen horien kontaketa osatzen du antzezlanaren hari nagusia. Protagonistak berak esandakoari jarraituz, "euskeraz bizi garenek erdaldun berriak gara, gaztelaraz hitz egiterakoan esan beharrekoak pentsatu eta askotan hitzak faltan baititugu. Horregatik, euskaldunontzat, antzezlanak, terapeutikoa izango delakoan nago". Sarrera libre eta doakoa izango da.



Motxaila Eguna MENDARON

Gaur gauean, 22:00etan San Agustin kultur aretoan, bertso saio bikaina izango da Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Alaia Martinekin, Maialen Olazabal gai-jartzaille dela. Sarrerak 5 eurotan eros daitezke Morroskilo dendan eta Aitzbeltz tabernan. Bihar goizean, berriz, Aitzbeltz kobazuloa ezagutzeko eta bertan egingo den jaialdiaz gozatzeko aukera izango da: irrintziek, poemek eta abestiek bertara doazen guztiak kobazuloarean magian murgilduko ditu. Eguerdian, Gaztetxean bazkaria egingo dute eta, ondoren, jaialdia (klown saioa, txalaparta, kontzertua...) izango da. Iluntzean, herri-poteo maratonia hasiko da, "gorputzek iraun arte".



Beratu musika jaialdia OÑATIN

Atom Rhumba, Elena Setien, Mohama Saz, Ainara Legardon, Olatz Palacios, Unama, Juan Valls Trio, Madeleine, Vulk, Orbel eta Trakamatraka iragarri dituzte asteburu honetan Oñatin egingo den Beratu musika jaialdiaren bigarren edizioan. Atzo hasi eta domekara arte iraungo duen egitarauan film proiektzioa eta hitzaldiak ere izango dira, Beratu Txikirekin batera.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Pili Legarza Ezkerra. 90 urte. 2019-III-20.
- Francisco Conde Otero. 74 urte. 2019-III-20.
- Ambrosia Castillo Bravo. 87 urte. 2019-III-21.
- Luis Iturbe Larrañaga. 93 urte. 2019-III-21.
- Pepita Castillo Bravo. 87 urte. 2019-III-21.
- Saturnino Perosanz Minguez. 98 urte. 2019-III-21.
- Miguel Fernando Neira Torrealdai. 56 urte. 2019-III-24.
- Prudencio Zubia Ballona. 91 urte. 2019-III-26.

jaiotakoak

- Mara Bustillo Cruz. 2019-III-18.
- Safwan El Gagui. 2019-III-19.

farmaziak

- Barixakua 29
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
- Zapatua 30
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 31
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Astelehena 1
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- Martitzena 2
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Eguaztena 3
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Eguena 4
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 5
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)

GAUEZ BETI - 2019AN-
 Zulueta (San Agustin, 5)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

3	5	9	7	2	8	1	6	4
8	4	1	3	6	5	7	2	9
7	6	2	4	1	9	8	5	3
6	1	8	2	3	4	5	9	7
4	3	5	1	9	7	2	8	6
9	2	7	8	5	6	3	4	1
5	7	4	6	8	1	9	3	2
1	8	3	9	4	2	6	7	5
2	9	6	5	7	3	4	1	8

	5			8				
		8	9			2		
4				5	3			6
5				7		9	6	
		4				5		
	2	1		9				8
8			2	3				9
		9			7	3		
			1				7	

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiaki.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol. Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

Barixakua 29

KONTZENTRAZIOA

12:30. Eibarko Probadero kaleratzeen aurkako kontzentrazioa. Untzagan.

Zapatua 30

MENDI-IRTEERA

09:00. Soralezeko eta Eibarko Mugarriak ezagutzeko mendi irteera, 21. Korrika Kulturalaren barruan. Irteera ordua Untzagatik (Irure auzotik, 09:30ean).

IKASLE-OHIEN BATZARRA

11:30. Armeria Eskolako Ikasle Ohiei zuzendutako ekitaldia: Harrera eta akreditazioak.

12:00. Irekiera.

12:10. Aurkezpena: bazkideen zerbitzu berriak.

12:40. Intsigniak banatzea (1969ko promozioakoak).

12:50. Diplomak banatzea (1994ko promozioakoak).

13:05. Bisita gidatua Armeria Eskolan.

13:45. Luntxa eta argazkia.

14:15. Bazkaria, Chalcha jatetxean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17:00. "Martinarene parke fantastikoa" (Producciones Maestras, Nafarroa). Musikala, euskeraz. 5 euro. Coliseoan.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

ZAPATUKO IPUINA

20:30. "Animalien biltzarra" ipuin-kontakizuna, Maider Alcelay Romeroren eskutik. Umeen liburutegian.

UDABERRI JAIA

23:30. Udaberriari ongietorria emateko jai, Juanma Cano DJ-k girotuta. Ametsa tabernan.

Domeka 31

NEGUTRIL

09:00. Uxue Frailerekin topaketa.

14:00. Bazkaria eta solasaldia. Izen-ematea (20 euro) eta informazioa: kalamuakorrikalaritaldea@gmail.com.

IBILALDI SOLIDARIOA

11:30. "Urduinduz", autismoaren alde: ibilaldia herriko kaleetan zehar, pintxoak eta sagardoa, musika, puzgarriak...

KONTZERTUA

12:30. Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

EKITALDI POLITIKOA

12:30. Eibarko Sozialisten udal hauteskundeetarako hautagaitza aurkezteko.

De los Toyos alkategaiaren parte-hartzearekin eta Trio Medianoche taldearen emanaldiarekin. Amaieran luntxa. Untzagako karpan.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

Astelehena 1

IKASTEN

10:00. Antzerkia. Luzatze ariketak. Portalean.

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatua eta pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

18:00. "Kontsumoa: irtenbideak arazoan aurrean" hitzaldia, Jesus Alconero KIUB-eko arduradunaren eskutik. Beheko Tokian.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Comedia Aquilana" (Nao d'amores / Cia. Nac. De Teatro Clasico). 12 euro (8'5 Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Martitzena 2

IKASTEN

10:00. "La musica en el cine" hitzaldia, Marina Lertxundiren eskutik. Armeria Eskolan.

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

12:00. Toka eta igel-toka-txapelketa. Ipuruako jubilatua-etxean.

17:00. Mahai-jokoaren txapelketa: tute, mus eta briska. Ipuruako jubilatua-etxean.

IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

MAGIA

18:00. "Aroa eta mirariak", magia saioa familientzat, Asier Kidam magoaren eskutik, "Haur liburuaren nazioarteko eguna" ospatuz. Umeen liburutegian.

HARIXA EMOTEN

19:00. Irati Elorrietaren "Neguko argiak" liburuari buruzko literatur tertulia. Portalean.

Eguaztena 3

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

16:00. Txokolate-jana eta kantuak, Kaleetan Kantuz taldekoekin. San Andres zaharren egoitzan.

BAKARRIZKETA

19:00. "Erdaldun berrien kluba" ikuskizuna, ...eta kitto! Euskara Elkartearen laguntzarekin Korrika Kulturalaren barruan antolatuta. Doan. Portalean.

BILERA

19:00. Gara egunkariak jasaten diharduen erasoari nola aurre egin aztertu eta sostengu taldea antolatzeko bilera. Arrate Kultur Elkartean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 4

IKASTEN

10:00. "La pintura en su plenitud (La vejez de los mas grandes I)" hitzaldia, Ricardo Aldamaren eskutik. Armeria Eskolan.

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

11:00. Aixolara ibilaldia, Juan Luis Muguerzaren oroimenez. Irteera Egogain, Bidebarrieta eta Azitainetik. Izen-ematea apirilaren 2ra arte, jubilatua-etxeetan (8 euro).

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza taldearen entsegua (hastapena, beteroen entsegua 18:00etan hasiko da).
19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Erakusketak

Martxoaren 31ra arte:

- "EIBARKO BELOMOTORRAK" (*Armagintzaren Museoa*)
- "13+1 MIGRAZIO BIDEAK ETA ZAINTZAK" (*Portalea*)
- "LANAK ETXEAN, HOBE DENON ARTEAN" (*Portalea*)
- JON MIMOREN ARGAZKIAK (*El Ambigú taberna*)
- "EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ARTXIBOA (II)" ARGAZKIAK (*Portalea jatetxea*)
- "EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ARTXIBOA" ARGAZKIAK (*Deportiboa*)

Apirilaren 7ra arte:

- "UNTZAGA JUBILATU ETXEKO ZUZENDARITZAKO KIDEAK, 20. URTEURRENAREN HARIRA", EINER RODRIGUEZEN ARGAZKIAK (*Untzagako Jubilatua Etxea*)

Apirilaren 14ra arte:

- XXII. EGUEN ZURI ARGAZKI LEHIAKETAKO LANAK (*Topalekua*)

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak JON, etzi urtetxua egingo dozu-eta. Laztan haundi bat etxeko danoz eta, batez be, Anetteren partez.



Zorionak NORA, neska haundi, astelehenian 10 urte egin zenduaz-en-eta. Musu haundi bat etxeko danon partez!



Zorionak MAIALEN, apirilaren 2xan 24 urte beteko dozuz-eta. Etxeko guztien partez. Asko maite zaittugu.



Zorionak IRATI! Urtebete gure bizitzak alaitzen! Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Unairen partez!



Zorionak JONE!! Gure printzesak 6 urte egitten dittu-eta. Milla musu famelixa guztiaren partez. Gora zu!



Zorionak MIREN, atzo 6 urte bete zenduazelako. Aitta, ama eta famelixa guztiaren partez. Maite zaittugu, pitxin!



Zorionak IMANOL, bixar urtiak beteko dozuzelako. Ondo-ondo ospatu. Musu haundi bat lagun partez.



Zorionak MARIA, martitzenian 8 urte egin zenduaz-en-eta. Patxo potolo bat zure famelixaren partez.



Zorionak NAIA eta IRATI, 8 urte bete dozuez-eta. Musu haundi bat etxekuen partez!



Zorionak ANE Azpiri, haraiñegun 13 urte bete zenduazelako. Besarkada bat etxekuen partez.



ORDU ALDAKETA



Martxoko azken domekan (etzi, 31n) udaberriko ordutegia sartuko da indarrean. Zapatu horretatik domekarako goizaldeko 02.00ak ailegatzean, erloju guztiak ordubete aurreratu egin beharko ditugu, 03.00ak arte. Ofizialki ORDUBETE GUTXIAGO izango du aste-buruko domekak. Horrela, agur esango diogu indarrean izan den neguko ordutegiari. Udako ordutegi berri horrek urriaren 27ra arte iraungo du; egun horretan negukoa jarriko da berriro indarrean.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
30ean: 19:45, 22:30
31n: 17:00, 20:00

"La mujer de la montaña"
Zuzendaria: B. Erlingsson



(2 ARETOAN)
30ean: 17:00, 19:45, 22:30
31n: 17:00, 20:00
1ean: 20:30

"Las herederas"
Zuzendaria: Marcelo Martinessi



(ANTZOKIAN)
30ean: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30
31n: 17:00, 20:00
1ean: 20:30^(1 ANTZOKIAN)

"Dumbo"
Zuzendaria: Tim Burton



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisu salgai Julian Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukaldia eta komuna. 85 m². Kalefakzioarekin. Tel. 615-781231.
- Pisu merkea salgai Santo Domingo de la Calzada erdigunean. Bista ederrak. Kontzeptuko. Tel. 675-803734.

1.2. Errentan

- Emakume arduratsuak logela hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 631-141454.
- Landetako kanping batean mobilhomea alokatzen da uztailean eta abuztuan (hila-bete osoa edo hamabostaldia). Tel. 628-573783.
- Mutila eskaintzen da bi logela baino gehiago dituen pisua alokairuan hartzeko. Tel. 632-569245.
- Buhardila alokatzen da Txontan. Bosgarren soilaruan, igogailurik gabe. Aukera ona. Tel. 626-144098.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Plaza bateko garajea erosiko nuke Ubixan edo inguruan. Tel. 680-166507. Javi.
- Lokala salgai Urkizun. 70 m², komunarekin. Arkitektura-estudioa edo aholkularitza bulegoa jartzeko edo hizkuntza-eskolak emateko egokia. 70.000 euro. Tel. 661-377537.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-729476.
- Mutila eskaintzen da banatzaile jarduteko, kamarero bezala eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-590854.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 662-012834.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 643-435780.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Orduka. Esperientziarekin. Tel. 667-060292.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Asteburuak barne. Ordu-tegi malgua. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-668877.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Asteburuak barne. Tel. 643-398596.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 602-133120.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-405748.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-506763.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-541124.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 679-946934.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 643-929554.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 622-677230.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 698-733356.
- Neska eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 642-487564.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 666-077157.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta etxeko lanak egiteko. Tel. 666-197831.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatria formakuntzarekin. Tel. 602-490595.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-449882.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 698-343477.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-950442.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 631-619091.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 616-585028.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-247910.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-872969.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 612-286211.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 658-273486.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 635-189294.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin) eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-818176.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 697-292668.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-388279.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 690-134485.
- Emakumea (erizain-laguntzaile ziurtagiriarekin) eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 688-624560.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserrian lan egiteko. Tel. 674-569736.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-735551.

4.2. Langile bila

- Sukaldari, garbitzaile eta kamareroa behar dute jateke batean. Tel. 659-539861.
- Ileapaindegi-laguntzailea behar da aste-buru eta oporretarako. Tel. 619-928881.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Ingelesko irakaslea (maila altuarekin) behar da Eibarko akademia baterako. Esperientzia baloratuko da. Bidali curriculum-a: academiameetingpoint@gmail.com
- 2. Batxilergoko ikasleak ingeles klaseak behar ditu. Tel. 634-926030.

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Selektibitateko klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. Goiz eta arratsalde. Tel. 685-739709.
- Neska euskaldunak klase partikularrak ematen ditu LHko ikasleentzako. Tel. 647-615265.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Akordeoi handia salgai. Modelo zaharra. Tel. 605-711422.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Ezkon-eraztuna eta belarririk bat aurkitu dira Urkizuko dorreetan. Jabea ...eta kittolitik pasa daiteke.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak antenak

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

ELEKTRIZITATEA

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com

TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922

KRISTALAK

ARKITEKTOAK

olatz etxeberría martinez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberría

arkitektura, hirigintza eta peritazioak
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com



ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS

E.I.T.

ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA

info@ajtoficina.com tlf. 943 80 18 50
AJT Zihurtasuna S.L.p.
Barrena, 6 - behea ezk.

ACHA Kristaldegia
TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@crystaleriaacha.com
ERAKUSKETA
Arikixaneko Zubian

AROTZAK

ulmar
S.L.
metalezko
eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-
605 713 168 943 744 019

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

GARBIKETAK

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Arragueta, 18-2.D

www.kolorlan.com 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

MALVAR
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

Txillardegi eta Korrika

Kaixo, Txillardegi nauzue. Aurtengo Korrikaren edizioaren omendua naiz euskararen alde egindako lanagatik. Ondorengo jokoan Korrika eta niri buruzko datu batzuk emango dizkizuet. Hitz zifratua osatu erantzun bakoitzean agertzen diren hizkiak erabiliz.



1 Zein da KORRIKA 21eko leloa?

- Izpiak
- Alde
- Klika

2 Non egiten da Korrika?

- Hego Euskal Herrian
- EAEn: Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban
- Euskal Herrian eta munduko hainbat lekutan

3 Noiz ospatu zen lehenengo edizioa?

- 1977
- 1979
- 1980

4 Zenbat km egin ohi dira guztira Korrikan?

- 1.000 km
- 2.100 km
- 1.500 km

5 Aurten noiz pasatuko da Eibartik?

- Apirilak, 12 -14:55
- Apirilak, 13 - 14:55
- Apirilak, 14 - 14:hh

6 Zer gordetzen da Korrikako lekukoaren barruan?

- Omenduaren izena
- Mezu sekretu bat
- Ikurriña

7 Zer maiztasunez antolatzen da Korrika?

- Lau urterik behin
- Urtero
- Bi urtero

8 Txillardegi ezizena da. Eta benetako izena?

- J.L. Alvarez Enparantza
- Jose Irazu Garmendia
- Joxe Migel Iztueta

9 Txillardegiaren zein lan jotzen da euskal literaturaren eleberr modernotzat?

- Haizeaz bestaldetik
- Peru Leartzako
- Leturiaren egunkari ezkutuar

10 Nork egin zuen lehenengo Korrikako kanta?

- Mikel Laboa
- Xabier Lete
- Xabier Amuriza

11 Zeintzuk dira aurtengo abestiaren interpreteak?

- Mad Muasel, La Furia eta Fermin Muguruza
- La Basu, La Furia eta Fermin Muguruza
- La Furia, Izaro eta Fermin Muguruza



21. korrika
2019ko apirilaren 12tik 14ra
GARESTIK GASTEZA

Hitza lortu al duzue?
Bidali zure erantzuna eta zure datuak e-postaz zozketan parte hartzeko.



ERANTZUNA: Zein da hitza?

9	1	7	3	4	8	10	6	11
---	---	---	---	---	---	----	---	----

ArmeriaEskola^x

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA BATZORDEA, 2019
korrika@armeriaeskola.eus

ArmeriaEskola^x

Erantzuna bidaltzeko azken eguna: **Apirilak 12** (korrika@armeriaeskola.eus)

OHARRA: Hitza lortzeko letrak zenbakien ordenari jarraituz idatzi behar dira.

Agenda Helmet APIRILA ABRIL

12 Ostirala

UDABERRI FESTA

19:00

Sorpresa askorekin!

Denok gonbidatuta zaudete!



Eventos

- Eibarren egindako markak
- Moda
- Etxeko osagarriak
- Yoga: "Yoga + Jarrera-Adimena" "Jarrera berregokitzea"

- Urtebetetzeak
- Formakuntzak
- Dastatzeak
- Hitzaldiak
- Ekitaldi korporatiboak

Eta askoz gehiago!

moments
with
a story
behind

Asteazkenetan

CURSO DIBUJO CREATIVO MANDIRA STUDIO

18:30-20:30 // Helduentzako

Ocio

23-24 eta 26 Aste santua

MANDALAS INTUITIVOS MANDIRA STUDIO

10:00-12:30 // 8-14 URTE

Ocio

26 eta Maiatzak 3-10-24 Ostirala

MINDFULNESS EIDER PEREZ

18:00-20:00

Salud

28 Igandea


-MUSIKALA- MUGISORMEN TAILERRA KAXA

10:30-12:00 // 3-6 URTE 16:30-19:30 // 7-11 URTE

Ocio

hello@helmethouse.es
943 849 310

BLAS ETXEBERRIA 1,
COLISEO ONDOAN!



helmet house

CONCEPT STORE

f @helmethousestore